1919tik | 2.610 zenbakia | 2018/09/02 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

MARAVILLAS GAZTETXE BATEN INDARRA

MARÍA JESÚS BALBÁS: "MENOPAUSIA ASKATASUN ESPAZIOA DA"

IZABAKO UDALA: ENERGIA SORTU, ZABALDU ETA SALTZEN LEHENA

ELSA DORLIN AUTODEFENTSAZ: "AFEKTUAK POLITIZATU BEHAR DITUGU"

9 778402 139093 02610

ARGIA
Zer emateko prest zaude?
Eta zer jaso nahi duzu?
INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA
943 371 545
www.argia.eus/eginargiakoa
#ArgiaJendea

ARGIA

2.610 zenbakia | 2018/09/02

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Albisteak
7 Fauna publikoa
10 Dewayne Johnsonen minbiziak balioko ote du *Roundupa* debekatzeko?

IRITZIAK

17 Mikel Zurbano
18 Andoni Mujika Ulazia
19 Joxerra Aizpurua Sarasola Itziar Bardaji Goikoetxea
20 Karmelo Landa

1960ko hamarkadatik Belabarze eta Belagua ibaien emaria aprobetxatu izan du Izabako Udalak zentral hidroelektrikoarekin argindarra sortzeko, eta banatzeko kable-sistemaren jabe ere bada. Orain azken urratsa eman du: energia saltzea.

DANI BLANCO

39 DENBORAREN MAKINA
40 BIZI BARATZEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA: MARIE-CLAIRE LEURGORRI
54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA

SAKONEAN

12 | Elsa Dorlin: "Muskuluak uzkurtzen diren uneak adierazten digu egoera ez zaigula justua" / Jenofa Berhokoirigoin

22 | Maravillas: Gaztetxe bat hauteskundeen zurrunbiloan / Xabier Letona

28 | María Jesús Balbás: "Menopausia okerren bizi dugunak europarrak gara" / Ane Labaka Mayoz

32 | Maritxu Urreta Zulaika (1915-2018): Irakastea baino ikastea nahiago zuen bizizalea / Onintza Irureta Azkune

34 | Urrats aitzindariak energia burujabetzaren bidean / Ane Eslava Serrano

42 | Bertsoz "iraintzeagatik" Txirrita kondenatu zutenekoa / Estitxu Eizagirre Kerejeta

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gipuzkoako Foru Aldundia

CC BY SA

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produkzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetzak: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus

PANORAMA

Amazoniarik gabe, bizitzarik ez

Munduko animalia eta landareen %10aren etxea da, baita ehunka herri eta kulturaren sorterri eta babesleku. Munduko basorik handiena ez da kapitalismoaren gurpil zorotik salbu, eta hala deforestazio eta abeltzaintzarako lurren hedapen etengabeak kalte izugarria eragin die han bizi diren oihan eta herriei. Berbarako, bi datu: Amazoniako lurren %40a Brasilgo estatuaren barruan dago eta azken 40 urtean lurren bostena suntsitu dute. 10 urtean behin Amazonas ibaian bizi diren izurdeen erdia hiltzen da. Amazoniaren defentsa koordinatzeko, Bogotan elkartu dira Hego Amerikako bederatzi herrialdetako hainbat jatorrizko herritako ordezkariak. Perutik Atlantikora doan korridore bat sortu nahi dute, 150 bat milioi hektareako bizitza eta kultur aniztasuna babesteko. Azaroan Nazio Batuen Erakundean aurkeztuko dute.

Argazkia: Cesar David Martinez/Avaaz · Testua: Axier Lopez

#MeQueer traolapean, bere bizipenak kontatzen ari da LGBTIQ+ kolektiboko jendea.

"13 urterekin klaseko batek 'zergatik hitz egiten duzu nesken moduan?' galdetzea eta luma zer den ikastea eta nintzena ezkutatu behar nuela barneratzea"

@5Garu

"Amak esatea ia negarrez beldurra duela egunen batean jipoituko ote nauten, trans naizelako"

@ra_blackwolf

"Umiliazio eta jipoi etengabeak jasatea eta institutuko komunetan ezkutatzea negar egiteko. Gehiago ezin jasan eta ikasketak uztea, eta drogetan erortzea. Nire buruaz beste egiten saiatzea"

@nareq97

"Ez dantzatu horrela! Eseri gizonen moduan! Zer egiten duzu gona horrekin? Panpina horrekin asko jolasten duzu! Inoiz ez duzu lan on bat izango!..."

@MusiuEduardo



JORGE DÍAZ BES / WIKIPEDIA.ORG

Franco deshobiratuko dute, lege-dekretu bidez

Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Francisco Franco diktadore faxista 1975eko azaroaren 23an hobiratu zuten Erorien Haranean. 2017an Espainiako Kongresuaren gehiengoak eskatu zuen gorpuzkinak ateratzeko eta Pedro Sánchezen exekutiboa horretarako lanean dabil. Azkenean, diktadorearen gorpuzkinak aterako dituztela iragarri du Carmen Calvo Espainiako Gobernuko presidenteordeak. Ciudadanos eta PP alderdiek ez dute Espainiako Kongresuan lege-dekretua babestuko, abstenitu egingo dira. Areago, popularrek Konstituzio Auzitegira jotzeko asmoa erakutsi dute, lege-dekretuaren formula aitzakia hartuta.

Sánchezek uda hasieran iragarri zuen pronto zirela hezurrak monumentutik ateratzeko, baina arazo legal ugari eta frankismoa defendatzen duen eskuin-muturraren oposizioa aurkitu ditu bidean. Francoren oinordekoek, esaterako, Espainiako erregimenak Vatikanoarekin bere garaian sinatu zuen konkordatua erabili nahi du ekimena eragozten saiatzeko.

Frankismo garaiko epaiak bertan behera

Sinbolikoki Francoren gorputzarekin zer egin baino garrantzi handiagoa duen urratsa emateko prest dagoela adierazi du Espainiako Gobernuak, Oroimen Historikoaren Legea aldatuz: frankismoko epai eta zigor guztiak bertan behera uztea. Biktimen elkarteek aspaldi egindako eskaria da eta PSOEk azaldu duenez dekretu hori ere kaleratuko dute, ERC alderdiarekin adostutakoaren arabera.

"Elizako hierarkiaren gailurrera iritsi da ustelkeria"



CARLO MARIA VIGANÒ, VATICANOKO NUNTZIO OHIA

Pensilvanian mila adin txikikori baino gehiagori apaizek egindako sexu abusu eta bortxaketak azaleratu dituzte berriki. Elizaren azken eskandalutik egun gutxira, Viganòk Francisco Aita Santuaren dimisioa eskatu du, Theodore McCarrick kardinalaren kontra zeuden abusu salaketak bazekizkiela eta hala ere kardinala babestu zuela argudiatuz. Beste hainbat prelaturen aurkako salaketak ere egin ditu Viganòk, eta gaineratu du pedofilia "zauri irekia" dela Elizaren barruan. **2018-08-26**

FAUNA PUBLIKOA

"Aldaketaren gobernua identifikatu dute oztopo nagusi gisa beraien 'kalimotxoaren iraultza' egiteko"

Itziar Gomez, Geroa Baiko zinegotzia Iruñeko Udalean, Maravillas gaztetxearen aferaz (Diario de Noticias)

Hitz egin nirekin, zerria

Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Badaude gauzak, zailak direnak bateratzen. Batzuetan aukeratu egin behar da. Adibidez, palestinarren alde zauden ala israeldarren alde. Adibidez, greba egin ala eskirola izan. Adibidez, nik zer dakit, Sadarren jokatzen dutenean Osasuna animatzen duzun ala Real Madril. Bat ala bestea. Beti ezin baita bata *eta* bestea egin. Eta hobe da ez saiatzea ere; zeren, saiatzen zarenean, emaitza geratzen da, gutxi gorabehera, Lizarrako San Jorge geratu den bezala: XVI. mendeko eskultura bat zaharberritu *eta* Capitan Trueno komikiari omenaldi bat egin nahi izatea, dena batera, hegazkin txartela erostea da Irrigarri Geratu Naiz konpainiarekin bidaiatzeko.

Abioi horren *business class*ean aurkitu dugu, portzierto, Geroa Baiko Iruñeko zinegotzi bat. Abuztuaren 26an erreserbatu zuen hegaldi-txartela *Diario de Noticias*-en publikatutako artikuluarekin, zeinean saiatu den ezkonezinak diren bi gauza egiten: bere alderdiak gaztetxearen afera konpontzeko daukan elkarrizketa-borondatea azpimarratu; *eta* gaztetxeko kideak iraindu, koka-kolaz eta ardo merkez osatutako koktel baten parrastada haien aurpegira botaz. "Zurekin hitz egiteko prest nago *eta* okupa kalimotxozale zorrizto bat zara" da mezua, gutxi gorabehera. Dialogo eraikitzaile bat hasteko gonbidapen aparta, inondik ere.

Hemeroteka, gainera, urde kabroi bat da kasu hauetan eta zinegotzi beraren hitzak erakusten ditu Euskal Jai gaztetxeari buruz hizketan 2009an: "Gaztetxe gisa erabiltzeko okupatu zuten eta eskaini zion, gaztediari orokorrean eta Alde Zaharreko auzoari partikularki, espazio diferente bat, alternatiboa, irekia, ilusionagarria eta parte-hartzailea". Kalimotxoaren iraultzak gehiago molatzen zuen lehen antza. ■



ANALISIA

Kirol apustuak: klubentzat arnas, askorentzat zama

Jon Torner Zabala
@jtorner
ARGAZKIA: UZTARRIA

Gero eta gehiago dira euren kamisetan apustu etxeen logoa paratzen duten kirol taldeak, futbol klubak bereziki, baina ez soilik horiek ("Oxigenoa Bilbao Basketentzat: RetaBet-ek 10 urtez babestuko du kluba", irakurri berri dugu egunkarietan). Gero eta normalagoa da kirol emanaldietan hedabideek tartekatzea apustu egitera gonbidatzen gaituzten iragarkiak. Gure herrietan ikusten badugu lokal bat obratan dagoela, litekeena da joko-areto berria irekitzea bertan. Horri gehitu behar zaio ia guztiok daramagula makina txanpon-jale potentzial bat poltsikoan, telefono mugikorretan kamuflatuta. Behin webgune batean erregistratu eta jokatzen hasita, oso litekeena da ihes egiteko zirrikiturik ez aurkitzea, pantailan jasoko dugun jakinarazpen zaparrada eta balizko sari ederrak medio. Erraza dirudi irabaztea… baina errazagoa da galtzea, bereziki gazteen (mutilen) artean handitzen ari den adikzioak erakusten duenez.

Kirol apustuen gorakadak kezkatuta, kontrako jarrera piztu da jendartean. Azpeitian, esaterako, Elkar-ekin taldeak deituta herritarrek elkarretaratzea egin zuten pasa den uztailean (argazkian), irekiko duten apustu etxearen aurrealdean, salatzeko, besteak beste, enpresa horiek "sekulako dirutza" egiten ari direla langileen auzoetan, bere behar ekonomikoak ase nahian jendeak apustura jotzen duelako. Gasteizen, Judimendiko gazte asanbladak *Auzoan jokoz kanpo. Joko aretoen hainbat argipen* txostena plazaratu du. Aretoetako kontrol neurriak (kamerak), tabernek baino ordutegi zabalagoa izatea, droga kontsumoaren eta istiluen igoera areto inguruetan eta horrek dakarren poliziaren presentzia ("kontrol sozial") gero eta handiagoa, kale hezitzaileen beharra izan duten auzokideak makinetan aritzea… Hamaika adarriri heldu diote.

Bestalde, Gamonalen (Gaztela eta Leon), herritar talde batek Udalari eskatu dio lizentziarik ez emateko jokoaren sektoreko enpresei, kirol ekitaldi eta espazioetatik haien publizitatea kentzeko, eta hedabideak ez erabiltzeko apustuak eta jokoa sustatzeko, besteren artean. Zentzu horretan, Italiako Gobernuak debekatu egingo ditu apustu etxeen iragarkiak 2019ko urtarriletik aurrera, baita enpresa horiek futbol taldeak babestea ere. Bada zer eztabaidatu.

EKONOMIAREN TALAIAN

Armagintzaren negozioa

Juan Mari Arregi

Azken asteotan hipokrisia politiko handi batekin egin dugu topo: kaleko saltzaile migratzaileak (manteroak) salatu eta aldi berean armagintzaren negozioa isilpean gorde, nahiz eta negozio horren ondorioz Yemenen kontra Saudi Arabiak eta beste herrialde batzuek daramaten gerra sekretuan makina bat haur hil dituzten. Espainiako Estatuan, Ciudadanosek eta PPk gogor egin dute manteroen kontra. Eta hauek eguraldi txarraren, poliziaren eta politikari arrazisten kontra egin behar dute behin eta berriz.

Politikari zenbaitek jarrera faxista eta xenofoboz manteroak xaxatzen zituzten bitartean, Saudi Arabiak –Yemenen kontrako eraso militarraren sustatzaile nagusia eta gizateriaren kontrako krimenetan espezializaturik dagoena– eskolara zihoazen autobusak bonbardatu zituen eta 43 haur hil. Bonba horiek Espainiako Estatuaren armagintza negozioaren parte dira, eta euskal enpresak ere hor daude. Negozioa ondu da monarkia espainiarrak xeke arabiarrekin duen harreman estuari esker. 2012-2016 urteen artean Espainiak Saudi Arabiari armak saldu zizkion 1.400 milioi eurotan. 2017an beste 361 milioi izan ziren, aurreko urtean baino %133 gehiago: hegazkin militarra, granadak eta artileria-munizioa.

Non daude eskuineko alderdi faxista eta xenofoboak? Non gainerako espektro politikoa, euskal eta espainiar ezkerrak barne? Isilik daude halako egoeren aurrean. Non dira Espainiako Estatuko intelektualak? Non Euskal Herrikoak? Prentsan, irratian eta telebistan... Euskal tertuliakideek ere aspertzen gaituzte –Tasio, Fitero eta beste bakarren bat kenduta– Casadoren edo Espainiako presidentearen emaztearen aferekin. Uda izatea ez da aitzakia, armen negozio hiltzailearekiko mantentzen ari diren isiltasun konplizea justifikatzeko.

ELINTRANSIGENTE.COM

“Chicha” Mariani ekintzaile nekaezina hil da

ARGENTINA. Maiatzeko Plazako Amonen sortzaileetako bat eta giza eskubideen aldeko ekintzaile ezaguna zen. Argentinako diktadura garaian alaba hil zioten, baita gertuko gehiago ere. Clara biloba, aldiz, ez zuen sekula ezagutu, bahitu eta arrastorik utzi gabe desagerrarazi zutelako. 42 urtez aritu zen haren bila. Marianiren etxea memoria historikoaren ikur bilakatu da Argentinan.

Zentro bat Bilbon, bidean diren migratzaileentzat

Argia

Beste herrialde bat helmuga, Euskal Herrian diren migratzaileak artatzeko Bilbon edo inguruan zentro bat irekitzeko asmoa iragarri du Eusko Jaurlaritzak. Bi edo hiru aste eman ahalko lituzkete migratzaileek zentro berrian. Gaur egun, gehienez bost egun baino ezin dituzte egin harrera zentroetan.

Zaurgarri

“Gaixorik edo haurdun daudelako edo laguntza berezia behar dutelako ahultasun egoeran dauden pertsonak artatzea” zentroaren helburuetako bat izango dela azpimarratu du Josu Erkoreka Jaurlaritzaren bozeramaileak.

Herritarren babesa

Udan Euskal Herritik igaro diren migratzaileak artatzeko ardura Gobernuz Kanpoko Erakundeek eta herritar sareek hartu dute batez ere. Horren isla dira, adibidez, Donostiako Txantxarreka, Irungo Lakaxita edota Bilboko auzo elkarteak.

Kanporatze masiboa

116 migratzailek Ceutako hesia gurutzatzea lortu eta hurrengo egunean, 116ak modu kolektiboan eta berehalakoan Marokora kanporatu ditu Espainiako Gobernuak. Marokorekin 1992an sinaturiko akordio bat erabili du horretarako.

ALTSASUKO GAZTEAK

4

dira dagoeneko Euskal Herriko kartzeletara lekualdatu dituzten (Jon Ander Cob eta Julen Goikoetxea) edo aste honetan lekualdatuko dituzten (Adur Ramirez de Alda eta Aratz Urrizola) Altsasuko gazteak.

7

dira guztira espetxean daudenak. 79 urteko kartzela zigorra ezarri zien Espainiako Auzitegi Nazionalak.

ETXEBESTETARRAK

Agur Etxebeste pelikula grabatzen hasi dira Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendariak. *Aupa Etxebeste* film arrakastatsuko (2005) lantalde bera izango da. Ramon Agirre Patrizio izango da, Elena Irureta Maria Luisa, Iban Garate Iñaki eta Paco Sagarzazu Luziano.

SASIKO GAZTETXEA

Asteburuan Hendaiako Udalak Sasiko Gaztetxetik gazteak kanporatu ondoren, luze mintzatu ziren bi aldeak. Gazteei egoitza bat aurkitzeko asmoa azaldu zien auzapezak eta horretarako 18 hilabeteko epea eskatu die.



ALCALÁ MECO

Francisco Espinosa presoa hil da Alcalá Meco espetxean. Hil baino lehenago eskutitza idatzi zuen, funtzionarioek euskal presoekiko duten jarrera salatuz. Alcalá de Henareseko epaitegiak heriotza ikertuko du.

Dewayne Johnsonen minbiziak balioko ote du *Roundupa* debekatzeko?

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Monsantok 289 milioi dolar ordaindu beharko dizkio San Frantziskoko udal langile bati *Roundup* herbizidak eragin duelako gizona hil-hurren daukan minbizia. Hala ebatzi du abuztuaren 11n Kaliforniako epaitegi batek. Epai historikoak berriro atera du eztabaida publikora munduan gehien kontsumitutako herbizida kimiko aspalditik susmagarria. Balioko du nekazaritza industrialaren oinarrietako bat dena debekatzeko? Ala nekazari profesional eta amateurrek jarraituko dute itsu erabiltzen?

Erabaki historikoa da Kaliforniako herritarrez osatutako epaimahaiak hartu duena, lehen aldiz AEBetako epai batek lotu baitu baratze eta soroetako belar txarrak hiltzeko erabiltzen den glifosatoa –komertzialki gehien bat *Roundup* izenez ezaguna– minbiziarekin. Epaimahaiak frogatutzat jo du 46 urterekin hilabete gutxiko bizia iragarri dioten Dewayne Johnsonen Ez-Hodgkin Linfoma *Roundup*-ak eragin ziola, San Frantziskoko udalarentzako lorezaintzako lanetan erabiltzearen poderioz.

Epaiak ondorio garrantzitsuak ekar ditzake Europan ere, Europar Batasuneko legeen arabera ezin da-eta komertzializatu eragin kantzerigenoak dauzkan produktu fitosanitariorik. Ala, oso bestela, haizeak eramango duela 2018ko abuztuko beste opor-albiste zalapartatsuekin batera?

Gertatuaren mamiaz *France Culture* irratiak bi aditu elkarrizketatu ditu, Stéphane Foucart *Le Monde*-ko kazetaria Monsantoren informazio ezkutuak plazaratuz saritua izan dena eta Emilie Gaillard Normandiako unibertsitateko irakaslea Hagan Monsantori 2016an egin zitzaion herri epaiketako kidea. Haien analisiak laburbildu ditugu.

Kaliforniako epaileen abuztuko sententziak duela bi urteko gertakizun batean du oinarria. 2015ean IARC Kantzerraren Ikerketarako Nazioarteko Zentroak –Munduko Osasun Erakundearen adarra denak– "probabletzat" ezarri zuen glifosatoak eragin ditzakeela minbiziak gizakiengan. Geroztik 4.000 familiak dauzkate AEBetan kereilak aurkeztuak Monsantoren kontra Ez-Hodgkin linfomak nozitzen dituzten senideen erantzuletzat joz.

Krisiari aurre egiteko, Monsantok eta oro har industria agro-kimiko osoak lobby kanpaina bortitza egin du bi urteotan IARCren txostena indargabetzeko. Eta lortu dute bai Europar Batasuneko eta bai AEBetako elikadura segurtasunerako arduradunek auzitan jartzea IARCren 2015eko txostena.

"Horrek erakusten du –dio Foucartek– zein dibortzio larria dagoen alde batetik zientzia akademikoaren eta bestetik zientzia erregulatzailearen artean. Lehenak [IARCek bildu duen aditu taldeak] gaia ikertzen du zientzialarien modu klasikoan, hipotesiak aztertu eta alderatuz. Baina Europa eta AEBetako agintari araugileek kontutan hartzen duten zientzia da industrialek berek baimenak eskatzeko sortzen dutena, zientzia kontrolatua".

Akademiko ospetsuen izenez mozorrotutako zientzia kontrolatuaren funtzionatzeko era hobeto ezagutzeko aukera eman zuten 2017an AEBetako epaileen aginduz desklasifikatutako barne paperek. Haietan ageri zen Monsanto multinazionaleko ikertzaileek berek ere kezkak badituztela aspalditik beren produktuez, baina ikerlari arduradunek diotenez ez dela komeni muturrik sartzea produktuon merkaturatzea arriskuan jar dezakeen bideetatik.

Monsantok bere produktuen alde egiten duen lobbygintzak oroitarazten du duela 40 urte tabakoaren industriak egiten zuena, baina handiagoan. Epaileen aginduz 2017an Monsantori aurkitutako barne agirietan demostratu da *Roundup*-a zuritzeko ikerlanak enpresak berak espreski sortu eta gero –ondo pagatuta– sinatzera ematen zizkiela zientzialari ezagunei hauek beren izenpean aldizkari zientifikoetan publikatu zitzaten. Txosten horietako batzuk dira urte luzez glifosatoaren arrisku gabetasuna justifikatu duten nagusietakoak.

Nekazaritza gehiena pozoiaren *yonki*

Eztabaida zientifikoaren ikuspegitik, 2017an eskuratutako Monsantoren agiri ezkutuek asko argitu zuten gaia: enpresak berak tranpatan zabaldutako dokumentazio guztia auzitan jarriz gero, glifosatoa arriskutsua dela dioen zientzia askoz gardenago ageri da. Eta abuztu honetan San Frantziskoko zinpekoek sententzia bidez jurisprudentzia ezarri dute IARC-ek esandakoarekin.

Luze joko du, ordea, epaia betiko finkatzea. Monsantok –berrikitan Bayer multinazional alemanak erosia– armada bat abokatu dauka eta apelazioa egingo du. Transgeniko, etxalde erraldoien eta mekanizazioaren gainean antolatutako agro-industriaren eskeman *Roundup*-a gakoa baita.

Kaliforniako epaiak aktualitatera ekarri du 2016an Hagan burutu zen *Monsanto Auzitegia*-ren lana. Holandako

NBC katearen irudietan, Dewayne Johnson ondoan duela munduko laborari eta baratzezain orok ezaguna duen 'Roundup' pote bat. 46 urteko Johnsonek, bi gaztetxoren aita, Ez-Hodgkin linfoma oso aurreratua dauka. Hiru urtez erabili zuen pozoia eskola publiko bateko berdeguneetan udal langile lanetan. Hartu behar duen kimioterapia ordaindu ahal izateko bere emazteak bi lan egin beharra dauzka. Kaliforniako epaitegiak Monsanto deklaraturik minbiziaren eragile, konpainiak iragarri du helegitea aurkeztuko duela.

hiriburuan *Roundup*aren arrisku eta kalteak aztertzean, ekozidio delituaz egindako lanketa garrantzitsuaz gain, epaimahaiak agerian utzi zuen munduko agintariek aurre egin behar diotela fenomeno berri bati: produktu baten arriskuek etorkizuneko jendeen bizitzak baldintzatzeari.

Monsanto Epaitegia-n parte hartu zuen Emilie Gaillardek dioenez, glifosatoarekin eta oro har beste hainbat pestizidarekin ari da gertatzen urte luzez amiantoarekin gertatu denaren oso antzekoa: amiantoaren industriak hamarkada luzez egin zuen moduan kalteak aspalditik egon arren demostratuak industriak eten gabe argudiatzen duela batetik arrisku horiek aski frogatuta ez daudela eta, beste, alternatiba hoberik ez dela horretarako nekazarien bidez presio eginez.

Kontua da Europako legediak aitortzen duela *prekauzio printzipioa*, hau da, produktu batek gizakientzako edo ingurumenarentzako eduki dezakeen arriskuaz susmo sendorik egonez gero agintariek prekauzio printzipioaren arabera jokatu behar dutela, behar izanez gero merkaturatzea debekatuz. Alde horretatik, Hagako *Monsanto Auzitegia*-k multinazionalaren salaketa erretorikotik urrats bat aurreratuta argudio juridikoak osoki landuta utzi zizkien prest agintariei hauek erabaki politikoak hartzeko.

Hala ere, Kaliforniako epaiak aldatuko ditu gauzak? Zein abiaduratan? Glifosatoa da munduan gehien saldu eta erabilitako produktu fitosanitarioa. Urtean 800.000 tona erabiltzen dira munduan. Nekazari gehienak, behintzat ekonomikoki garrantzia dutenak, ohitu egin dira beren soro eta baratzeetako belarrak *Roundup*-ez kontrolatzera, ezingo lukete funtzionatu hura gabe.

Baina glifosatoak laborariez gain baditu *yonki* askoz gehiago. Administrazio publikoek trenbide eta errepide bazter, kale, parke eta abarren mantenuan banalizatu dute *Roundup*-a. Baratzezain amateurrak dira beste pozoizale amorratuak, herbizidak bezala klase guztiko xomorro akabatzaileak kontrolik gabe barreiatzen dituztenak. Hainbeste zalaparta eta gero, harrigarria badirudi ere, kilo erdiko *Roundup* potea libreki saltzen da Euskal Herriko komertzioetan: pozoi arriskutsuak manejatzeko administrazioak ematen duen karneta ez da behar kiloa baino gutxiagoko kopuruetan. Bitxia: bai eskatuko dizute nekazaritza ekologikoan onartuta dagoen salda bordelesa erosteko! ■

«Muskuluak uzkurtzen diren uneak adierazten digu egoera ez zaigula justua»

Elsa Dorlin

Autodefentsa, ikergai eta helburu

Batetik, gorputz defendagarriak eta defendatuak daude eta bestetik, ez-defendagarriak eta menderatzaileek armagabeturikoak. Azken horietan, "muskulua politizatu" eta autodefentsarako urratsa eman dutenei begira jarri da Elsa Dorlin filosofo feminista. Emaitza *Se défendre, une philosophie de la violence* (defendatzea, bortizkeriaren filosofia bat) liburua dugu. Hastetik buru, Manada kasua aipagai ukan dugu, bete-betean garelako filosofoaren ikerketa esparruan.

Testua: Jenofa Berhokoirigoin

Argazkiak: Eva Binard

Bost gizonek burutu talde-bortxaketa jasanezina. Guztia filmaturik, irudiak badira. Bortxatuaren hitzari bizkar eginez, bortxaketa ez dute ikusi epaileek eta sexu erasotzat jo dute, bostak kalean libre utziz. Zer pasa da?

Rodney King kasua oroitarazten dit, 1991n modu oso bortitzean poliziak lintxaturiko gizon afro-amerikarraren kasua, filmatua izan zena ere. Auzipeturiko poliziak hobengabetuak izan ziren. Manadako bortxatzaileen auzian gauza bera da. Irudi horiek koadro batean hautemanak dira eta koadro hau ideologia, irudikapen bati loturik da, zeinetan balore nagusiei segi, emakume baten gorputza sexualki gizonen eskura den, bortizki erabili eta bortxatu daitekeen objektu gisa ikusia den. Manadakoen epaiketan erabaki behar ukan dute emakumearen jestuak benetan bortxaketaz defendatzeko ote ziren, benetan ezetza adierazteko ote ziren ala ez ote ziren onespen gisa interpretatzen ahal. Muturreko basakeria sozial eta patriarkal baten keinu dugu hori, benetan.

Ezin argiago izan eta alta... Azkenean, guztia da interpretazio.

Ez dugu irudi gordinik, beti dugu medium bat eta medium hau ideologia da. Sexismoaren erreprodukzioan parte

Elsa Dorlin
Paris, 1974
Filosofoa da, Paris-8 unibertsitatean irakaslea da. Feminista ere bai, intersekzionalitatetik eta erradikaltasunetik. Menderakuntza sistemak ikertzen dabil eta besteak beste, 2006an ateratako *La Matrice de la race. Généalogie sexuelle et coloniale de la Nation française* (Arrazaren Matrizea. Frantses Nazioaren genealogia sexuala eta koloniala) liburuaren idazlea da.

hartzen duen Estatu baten koadro judizialean kokatzen da Manadakoen epaiketa. Hori horrela, menderatzailearen interpretazioa da beti gailenduko.

Onarpenari begira jarri dira epaileak.

Botere harreman honen intentsitatearen isla da, emakumearen gorputza ez dago erresistentzian hautemana, defentsa ez dute irudikatzen. Bizirautea, gure buruaren salbatzea izaten da bortxaketaren unean daukagun autodefentsa maximoa, ezin dugu bizirik mantentzea baino gehiago egin! Baina, erresistentziaren ikuspegi oso heroikoa dugunez, heroi baten gisa jokatu beharko zuen, gudukatzeko super botereak ukan beharko zituen, eta justuki, hori egin ez duelako du egoera onartu. Alta ez da hori: ez du hori egin, baina horrek ez du erran nahi onartu duenik, autodefentsa forma batean zegoen eta une horretan bizirauteko urgentzian zen.

Gorputz beltza bortitz eta mehatxagarritzat duen koadroan dugu Rodney Kingen kasua. Manadakoen kasua, emakumearen gorputza eskuragarri eta bortxagarri duen koadroan.

Eskuragarritasun sexualaren kontua oinarrizkoa dugu emakume izatearen definizio normatiboan eta emakumearen pertzepzioan. Gorputza femenino kontsideratua izaten da, sozialki eskuragarri definitua den unetik. Ez du erran nahi emakumeek onartzen dutenik, erran nahi du ez dutela hauturik, haien izate sozialak die hori inposatzen. Horregatik gabiltza erresistentzia feministaren baitan kontra-norma eta aurkako jarreren agerrarazten; justuki, ideia hori uzkailtzeko, eskuragarritasun sexualaren oinarria erabat inposatua, behartua eta botere harreman baten fruitua dela ohartarazteko.

Bizirautea, ihes egitea, borrokatzea, hitza askatzea, guztiak dira autodefentsa formak eta ez duzu hierarkiarik egiten.

Hierarkizatzen hasten bagara, gizonkeria joera batean gara, zeinetan autodefentsak matxinada heroiko izan behar lukeen. Autodefentsa filosofiatzat daukaten mugimenduei begiratzen badiegu, ohartzen gara 'norbere bizia salbatzea' dela autodefentsari lotu daitekeen definizio bakarra. Norbere bizia salbatzeko taktika anitz badira. Ihes egitea bere burua salbatzea da, nahiz eta hor berriz, gizonkeriak markaturik, beldurti gisa kontsideratua izan. Alta, badakigu historian zehar ihes egitea hil ala biziko autodefentsa praktika izan dela. Ihesean mugarik ez den gisara, bortizkeriaren erabilpenean ere ez da mugarik, batzuetan muturreko bortizkeria salbatzeko bide bakarra delako. Ez dut inolako aburu moralik muturreko bortizkeriaren erabilpenari begira, autodefentsarako, hots, norbere bizia salbatzeko denean.

***Se défendre, une philosophie de la violence* zure azken liburuan bortizkeria duzu aztergai. Gorputz batzuk daude defendagarri, beste batzuk ez-defendagarri.**

Historia ofiziala zilegizko defentsaren historia dugu. Norberak bere burua zaintzeko eskubide naturalari lotzen da eta Estatu modernoen baitan, eskubide garrantzitsu hau Estatuaren esku utzia izan da. Estatuek bortizkeriaren zilegizko erabilpena dute, herritarren segurtasuna ziurtatzeko. Kasu urgenteetan, mehatxua berehalakoa baldin bada, orduan herritarrei uzten zaie zilegizko defentsaren eskubidea. Baina, Estatuaren zuzenbidearen historia egiterakoan ohartzen gara osoki herritar sentitzen direnek diotela eskubide hau utzi eta alderantziz, bigarren mailako kontsideratuak ziurtasun gabezian direla, ez dutelako Estatuaren babesik. Are gehiago, Estatuak armagabetu ditu; herritartasunetik at mantentzeak defentsarik gabe mantentzea erran nahi du. Esklaboak armagabetzen dira, emakumeak armagabetzen dira, gutxiengo kulturalak armagabetzen dira, langileriaren armatze praktikak etengabe kontrolatzen dira.

Manadaren kasuan, begi-bistakoa da zein alde izan den defendatua.

Argiki, bortxatzaileak defendatzen dituen Estatu bat dugu. Emakumeak desarmatzen dituen Estatu bat dugu, sozializazioaren bidez emakumeei borrokatzen desikasteaz gain, Justiziari begira armagabetzeaz gain, emakume honek ez du inolaz ere defendatzeko molderik. Are gehiago, defendatzeko gelditzen zaion bide bakarra da hori guztia normaltzat hartzea.

Emakumeoi hezur-muinetaraino sartu digute ezin garela bortitzak izan eta izanez gero ere ez dugula indarrik.

Hala da. Arazoa ez da ez dugula borrokatzen ikasi, arazoa da borrokatzea deseraiki digutela. Gure gorputza deseraiki digute, indartsu garenaren segurtamena eta konfiantza deseraiki digute, eta indar hori ezintasun bihurtu digute. Erran digute ez garela gai eta dena dela, bortizkeria erabiltzeko urratsa emanez gero, ero, histeriko ala munstro gisa zigortuko gaituztela.

Indar hori beldurrez ere transformatu digute. Nola egin beldurra erantzun ala errabia bihurtzeko?

Beldurra hor da, eta kontua ez da beldurrik ez ukatea edo beldurra tranformatzea. Hain dira izugarriak botere harremanak, non eta arrazoiz dugun

beldurra. Benetako galdera ondokoa da: Nola ematen diogu zentzua beldur horri? Beldur hori kodetua izango da iltzatuko gaituen sentimendu gisa, ezinaren eta ahultasunaren seinale gisa, ala alderantziz, gure gorputzaren kontzientzia berpiztu eta zerbait egitearen eta ihesi joatearen beharra sentiaraziko digu? Hori oso inportantea da. Bai, beldurra hor da eta guztia egina da sentimendu horretan fokuratzeko, baina beldurraz gain, beste sentimendu anitz badira. Kontua da, gainbaloratzen dugula beldurra, horretara bideratzen gaituelako botereak: "ez mugi, bestela hilko zaitut, kolpatuko zaitut" errateko beste molde bat da. Errealitatean, beldurraz gain beste emozio anitz daude: diozun errabia, sumindura, injustizia sentimendua, kexua, asaldura...

> » "Gorputzaren bidez egin behar dugu politika, gorputzari lotu behar gara eta afektuak politizatu behar ditugu, gorputza autodefentsarako arma bilaka dadin"

Ez idurian, sentimendu horiek ere hor dira.

Gainera, behatzen ditugu zeren harreman sexista, arrazista ala klasista (hiruak elkarlotuak izanki) baten baitako erasoaren ondotik, usu "hori egin beharko nuen...", "zergatik ez diot hori erantzun...", pentsatzen dugu. Erasoa izaterakoan, beldurraz gain errabia ere bazegoenaren isla dugu erru sentimendu hori. Agian, begi bat zulatu ala zango bat hausten ahalko genionaren seinale. Beldur hori landu behar dugu, koadro afektibo guztiari so egin behar diogu. Gorputzaren bidez egin behar dugu politika, gorputzari lotu behar gara eta afektuak politizatu behar ditugu, gorputza autodefentsarako arma bilaka dadin.

Muskuluak dioenari arreta eman eta erantzun.

Horixe, barneko afektu guztiak entzungo bagenitu, ezin geldituak ginateke! Funtsean, etenik gabeko erasoak ikusirik, ez dut ulertzen nolaz ez dugun dena erretzen eta hausten. Benetan diot.

Nobela bat ere sartu duzu autodefentsaren genealogian. *Dirty Weekend* eta zehazkiago, Bella izeneko protagonista.

Kultura feminista erradikalaren baitako nobela da, muturreko bortizkeriaz ari da. Liburu hori landuz, fenomenologia bat landu nahi izan dut, bortizkeriara pasatzeko esperientzia hori aztertu nahi izan dut. Helen Zahaviren kontakizuna interesgarria da, baina nik jakin nahi izan dut nola politikoki eraiki daitekeen gorputza, autodefentsa feministara pasatu ahal izateko. Bortizkeriak trabeskatzen gaitu eta egin daitekeen galdera ez da "bortizkeria al da?" ala "bortizkeria erabili behar ote da?" baizik eta, "zer egiten dugu bortizkeria honekin?".

"Zaintza negatiboa" nozioarekin azaltzen duzu gure gorputza entzun beharrean, menderatzailea entzuten gabiltzala.

Heriotzarainoko arriskuan jarriak diren gorputzak, ehizaturiko gorputzak dira, etengabean botere harrapakariari aurre egin behar diotenak. Harrapakin posturan garenean, bizi honen ezaugarrietariko bat da besteekiko neurriga-

beko arreta garatzearena, jakiteko zer eginen digun, zer gertatuko zaigun, zer -nolako bortizkeria jasango dugun. Feminismoan, bestearekiko arreta emakumeen egoera sozio-historikoari loturiko elementu bezala kontsideratua da tradizionalki, zeinetan emakumeak zaintzara zuzenduak diren. Hori horrela da eta egia da, baina zaintzan ez dugu hori bakarrik. Senarra ala bikotekidearen zaintza ez da soilik maitasun-enpatia forma bat. Bikote bortizkeria denean, zaintza hori hor dago bikotekidearen jarrera bortitza hor delako. Joko duelako, beharbada heriotzaraino, afaria hotza delako, nekatua delako edota espero duena ez duelako jaso. Ukaldiak eta bortizkeria saihestu nahian, hain naiz menderatzailearekiko arretatsu, non eta nire beharretatik, nire sentimenduetatik, nire mundutik erabat deskonektatzen naizen. Horrek bestearen bortizkeriaren justifikazio zerrenda luzea dakar. Lanjerraren ezagutza eta kontzientzia norberaren axolari artikulatzea funtsezkoa da. Hori ez bada egiten, justifikazioan eta ukapenean gara, zaintza negatiboan.

Ez ote da autodefentsa forma bat?

Noski. Baina autodefentsa ez da bakarrik defentsak ezartzea, norberak bere bizia salbatzea ere bada. Ukapenak edota amore emateak, defentsa psikikoak dira, egoera gehiegizkoa delako eta egunez egun biziraun behar delako. Hori defentsa da. Autodefentsan "auto" gehitzen zaio, hots, bere burua zentroan ematea. Ez indibidualismo modu batean, baizik eta norberaren politizazio forma batean. "Ez da gaiztoa izan, ez du ezer txarrik egin" erratetik "hau ez da ligatzea, hau nahi gabe barruratzen zait, min egiten dit, ezin dut gehiago, ezinezkoa zait" erratera pasatzerakoan, hor sartzen gara autodefentsan.

Bidea egin behar da eta luzea izan daiteke. Badirudi kontzientzia feministarik gabe ez dela kausitzen bide hori.

Gorputzetik pasatzen da, gorputzak erraten dizu ez dela normala. Ikaran zara, eskuak izerditsu dituzu. Zure gorputzari berriz konektatzen bazara, gorputz bazara, gorputzak erraten dizu ez dela normala. Kalean zarela, "puta" ala "polita" erraten badizute, uzkurtze muskularrak ukanen dituzu, deseroso sendituko zara, sentipen meta batek adierazi-

» "Bizirautea, gure buruaren salbatzea izaten da bortxaketaren unean daukagun autodefentsa maximoa"

ko dizu ez dela normala. Erraten dudana da hori guztia politizatzeko beharra dugula. Ez dugu baitezpada kontzientzia feminista behar, ez dugu ordu luzez kontu batzuei buruz hausnartu behar. Hori oso ongi da, baina, azkenean, ez da nahikoa. Nire ustez, muskulua politizatzeko beharra dago, muskuluak uzkurtzen diren uneak adierazten digu egoera ez zaigula justua; une hori politikoa da eta horri lotu behar gara.

Erantzun kolektiboa eman zaio Manadakoari, autodefentsa feministara deituz. Aipatzen duzun "elkartasun politika" adibide nabarmena.

Elkartasuna gorputzen elkartasunetik pasatzen da; nire feminismoa hau da, autodefentsa feministarena. Oinarriak anarko-feminismoan, anarkismoan, erradikaltasunean kausitzen dira. Beti praktikatu izan dugu autodefentsa, bortizkeria politizatuz eta noski, kontzientziazio feministatik pasaz. Kontzientziazio feminista ez da soilik hitzetatik iragaten, elkarrekin trebatuz, gorputzetik, errabia politizatuz, errabia hitzez edo gorputzez adieraziz, horrela ere bideratzen da kontzientzia feminista. Botere harremanei doakionez krisi egoera batean gara eta benetan uste dut beste estrategia politikoen (Estatuaren esku utzi, hitz egin, salatu, aldarrikatu...) mugak begi-bistan ditugula. Patriarkatua bukatzeko, elkarrekin gorpuztu eta autodefentsa feminista lau haizetara hedatu behar dugu. ■

Eguzkiaren zerga

Mikel Zurbano
EHU-KO IRAKASLEA

Europar Batasunak ekainean onartu berri du kontsumorako, biltegiratzeko edo sarean saltzeko energia ekoiztu nahi duenak eskubide osoa duela horretarako. EBeko instituzioen arteko akordioak Espainiako Estatuan 10 kw baino gehiagoko instalazioentzat indarrean dagoen eguzkiaren zerga kolokan ipini du. Elektrizitate enpresa handien kalterako den zuzentaraua 2021ean sartuko da indarrean.

Haatik, Madrilgo gobernu berria autokontsumo elektrikoaren zamaren aurkakoa delarik, eguzkiaren zerga lehenago ezabatuko duela espero da. Horretarako, Madrilgo legebiltzarraren gehiengoaren aldeko jarrera du, bertan PP baita aurka dagoen indar bakarra. Horrenbestez, energia berriztagarrien autokontsumoa sustatuta ikatzik gabeko ekonomiarantz bideratzen den energia trantsizioaren olatuan herritarren parte-hartzea indartu nahi da.

Estatuan eguzkiaren energia etxean erabiltzea eta sortutako energia kontsumitzea legezkoa da eta eskala txikian zergarik gabekoa da. Etxe arrunt bateko energia beharra ez da 3 edo 4 kw baino handiagoa. Beraz, 10 kw mugaren azpikoa izanik ez dute zamarik jasan. Hala ere, 10 kw baino gehiagoko ustiakuntza txikiek –landa eremukoak sarritan- eguzki plakak ipintzeagatik zerga ordaindu behar izaten dute.

Orain arte egoera hori arautzen zuen azken neurria 2015ekoa da eta autokontsumorako bi aukera erregulatu ditu. Lehenean instalakuntza ez da banaketa sarearekin lotzen eta, beraz, ez du sortutako energia merkaturatzen. Bigarrenean, aldiz, kontsumoaren gainetik sortutako gaineratikoa sarera bideratzen da. Azken egoera honetan elektrizitate ekoizle gisa erregistroan izena ematea beharrezkoa da eta instalakuntza 10 kw baino gehiago izatekotan sarbiderako bi sari ordaindu behar izaten dira. Sari bat finkoa da eta bigarrena sortutako energiaren araberakoa.

Madrilgo gobernu berria autokontsumo elektrikoaren zamaren aurkakoa delarik eguzkiaren zerga lehenago ezabatuko duela espero da. Horretarako Madrileko legebiltzarraren gehiengoaren aldeko jarrera du, bertan PP baita aurka dagoen indar bakarra. Horrenbestez, energia berriztagarrien autokontsumoa sustatuta ikatzik gabeko ekonomiarantz bideratzen den energia trantsizioaren olatuan herritarren parte- hartzea indartu nahi da

Zama horiek direla eta errotu egin da norberaren kontsumorako bideratutako eguzki energia bideragaitza delako ustea. Teknologia berrikuntza prozesuetan ohikoa den moduan kostuak gutxitu egiten dira denboraren poderioz. Eguzki plaken kostuak ere merketuz joan dira eta aipatutako zamak kontuan hartuta ere instalakuntzak egun bideragarriak dira, nahiz eta zergen kopuruak amortizazio epea luzatzea dakarren. Azken zazpi urtetan eguzki instalakuntzaren kostuak %76 murriztu dira, Espainiako Estatuko 2018ko autokontsumoaren egoerari buruzko txostenaren arabera.

Estatuan eguzki energia fotovoltaikoa elektrizitate eskariaren %3 da gaur egun. Eguzkiaren zergaren ezabaketarekin 2030 urterako ehuneko hori 10era igoko dela aurreikusten dute sektoreko eragileek. Bestelako energia berriztagarriak aintzat hartuta elektrizitate eskariaren erdia aise gaindituko lukete iturri hauek urte horretarako. Ikusteko dago sektoreko oligopolioek izango duten jokabidea. Elektrizitate autokontsumoaren logikak beren negozio ahalmena narria dezake eta, bistan da, duten botere politiko eta ekonomikoa eredu bertikalarekin jarraitzeko erabiliko dutela. Beste muturrean, energia berriztagarriak sustatzen dituzten Goiener, Som Energia edo REScoop sarea bezalako kooperatiben arrakastak energia eredu deszentralizatu eta jasangarrirako trantsizioa bermatu egiten dute. Kontsumitzailearen hautua eta, batez ere, Estatuan iragarrita dagoen trantsizio ekologikorako lege berria giltzarriak dira energiaren eredu aldaketarako bidean. ■

Nola biziberritu erakundeak?

Andoni Mujika Ulazia
AUTOERAKETA, KOOPERAZIOA ETA HEZKUNTZA
@mujikaandoni

Berritzea da zahartzearen kontrako tratamendu bakarra. Heldutasun aroan bizi diren erakundeen artrosiaz jardungo dut oraingoan.

Erakundeen gainbehera. Animaliek bezala erakundeek ere, sortu berriak direnean, berezko indarra soberan daukate. Bide bat egin eta gero, aldiz, puntxa galtzen dute maiz, eta errutina apatiko batean sartzen dira. Lege naturala dirudi, jaioberritan saltoka eta heldutasunean mantso.

Zergatik moteltze hori? Nire ustez bi fenomenok bat egiten dute erakundeen bizitasun-galera horretan. Alde batetik, jatorrizko planteamenduak, epe bat igarota, distira galtzen du. Oharkabean, bigarren plano batera pasatzen da erakundeari sorreran zentzua eman zion ideia eder hura. Bigarrenik, nahiko biologikoa eta ebolutiboa dirudien zerbait gertatzen da: organizazio batek bere bizitzaren lehen fasea pasa eta gero, hazteari utzi eta geratu bezala egiten da; hortik aurrera, biziduna den izaki ororentzat bezalaxe, erakundeentzat ere, bere buruaren iraupena izango da helbururik inportanteena. Horregatik, gorputz-instituzional hori kontserbadoreagoa egiten da, batzuetan larregi, ametsa ahaztu arteraino. Biziraupena bai, baina instintu horrek ez luke estali beharko erakundearen txispa.

Erakunde bat biziberritzeko lau eremutan eragin behar da batez ere. Lehena: pasibitatearen kontzientzia hartzea

Irtenbideak. Erakunde bat biziberritzeko lau eremutan eragin behar da batez ere. Lehena aipatu dugu zeharka: pasibitatearen kontzientzia hartzea. Honatx beste hirurak:

– Hurrena, eta inportanteena, proiektu berri bat edukitzea da, izaera ezberdina izan dezakeen egitasmo sendo bat. Azaldu dezadan. Organizazio bat biziberritzea apustu handia da. Beraz, zeregin horretan arrakasta izateko potentziala daukan estrategia bat behar dugu. Horregatik, logikoa dirudi, biziberritze prozesu hori gure barne-gogoak esnatuko dituen instintu batean oinarritzea. Nire iritziz, instintu hori da zerbait berria deskubritzeko daukagun berezko desioa. Pentsatzen jarrita, berritasuna atsegin dugu, bizitzaren edozein esparrutan erakartzen gaituen zerbait da.

– Hirugarren aldagarria liderra da. Proiektu berria amets bihurtzen dakien liderra. Esan daiteke liderra eta proiektua imajinario zirraragarri bereko bi aldeak direla.

– Laugarrena kolektiboaren epe luzeko formazioa eta informazioa da. Zertan? Erakundearen izateko arrazoian (zentzuan), baita honek dauzkan desafio eta proiektuetan ere. Horrela, izaki kontzienteagoak eta helduagoak izan ditzakegu, eta hori inportantea da, beste neurriekin batera, organizazioak behar duen elikadura orekatzen delako.

Azken apunte bat: erakundeen biziberritze majikoak lortzeko azaleko errezeta batzuk ere ikusten dira han eta hemen. Baina ez dago laburbiderik. ■

Oreka

Joxerra Aizpurua Sarasola
INDUSTRIA INGENIARIA

Hogeita hamar urte igaro dira Paris eta Londres lehen aldiz bisitatu nituenetik. Automobilez joan ginen eta Mantxako kanala ferryan zeharkatu genuen; aipatu hiriburuetan automobilez ibiltzeko ez genuen arazo berezirik izan.

Aurten antzeko ibilbidea egin dugu, baina ez gara hiriburuetan automobilez sartzera ausartu. Londresen kasuan, Folkestone hirian hartu genuen ostatu, 120 km-ra, eta Londresera hurbiltzeko 50 minutu behar zituen tren azkarra erabili genuen. Trenak bide zahar berritutik egiten du bidea, eta lau geltokitan geratzen da. Trenbide beretik beste tren batzuk ibiltzen dira mantsoago eta geltoki gehiagorekin. Tarifen sistema ere deigarri egin zitzaidan, ez baitira berdin ordaintzen goizeko 8etako eta 10etako trenak. Ordu puntetan, beti garestiago.

Tren azkarra zen hartu genuena, agian ez oso azkarra, baina nahikoa. Ez dakit zein izango zen bere garaian egindako inbertsioa, baina Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian AHTren inguruan egin eta egiten ari direnekin alderatuz, oso apala izango zelakoan nago.

Jakin badakit estrapolazioak matematiketan ongi funtzionatzen duela eta ez hain ongi hortik at, baina estrapolazio egokituak mundu osoan eta bizitzako egoera askotan erabiltzen ditugu. Hortaz, Ingalaterrakoa Euskal Herrira eta inguru-ra ekartzen saiatu nintzen; Irundik Madrilerako bidea, trenbide zaharra berrituz gero, bi ordu eta erdian edo hirutan egiterik izango genukeen eta Hendaiatik Parisera lau ordu pasatsutan, eta hori guztia eraikitzeko ez zait iruditzen dozena erdi bat urte baino gehiago behar izango genukeenik. Beraz, hamarkada honetan hasita jada martxan izango genituzkeen bi trenbide azkar samarrak. Abiaduraren eta inbertsioen arteko oreka mantenduko genuke eta datorren hamarkadan Hyperloop bezalako sistema teknologikoen bidez beste jauzi bat egiteko eran izango ginateke, betiere egin beharreko inbertsioen eta lortutako emaitzen arteko oreka mantenduz.

Euskal Herrian eraikitzen ari garen AHT-k hamabost edo hogei urte beharko ditu abian jartzeko, Madrilek eta Parisek orain bezain urrun jarraituko dute eta egindako esfortzuaren eta lortutako emaitzaren artean ez da ratio onik izango. Ildo horretatik doa Europatik uztailean bidalitako abisua, nire ustez, baina abisu hori gabe ere, gehiegi luzatzen eta esfortzu ekonomiko handiegia eskatzen ari den azpiegitura baten aurrean gaudela ezin uka.

Bidaiatzen segitu nahi dut eta askotan helburuetara heltzeko azkartasuna behar dut eta trena gustukoa dut. Baina lan publikoetan ere beste alor askotan eskatzen dugun didaktika erakutsi behar dugu. ■

Borroka da bidea

Itziar Bardaji Goikoetxea
NUP-KO IRAKASLEA

Gutxitan –edo inoiz ez– bizi izan dut horrelakorik. Kapitalismoari aurkariak, erlazioak eraldatu nahi dituztenak, iraultza ezinezkotzat jotzen ez duen gutxiengoa, legez kanpoko dantzariak, garaipen txiki eta handi bat ospatzen. Une batzuk lehenago lo falta islatzen zuten aurpegietan, neke guztiak ahazturik, irribarre sakonak eta malko batzuk ere bai. Beren buruei tipo gogorraren irudia inposatzen dietenak ere besarkada hunkitu eta alaietan murgildurik. Ospakizuna auzokideekin batera. Iruñeko Maravillas Gaztetxearen garaipena, behin-behinekoa izan daiteken arren, garaipen.

Noski, Nafarroako Gobernuan batzuk ala besteak egoteak eragina izan du. Noski, indarrez, abuztuan eta epaiketa baino lehen eginiko desalojoak zauritu gutxiago utzi ditu aurretiko gobernuen formekin alderatuz.

Noski, aldaketaren indarrek ez dute instituziotik gaztetxe hau ez martxan jarri, ez babestu. Ezinezkoa baita. Borondateak borondate, ez da borondate kontua. Rozalejo Jauregia okupazio bidez bihurtu zen Gaztetxe: askegune. Eta eskuinak eraso, Maravillas Gaztetxearen defentsa kalean eman zen, bai kordoi polizialean, bai gaztetxe barruan. Hau gabe ezin da Gobernuaren atzera pausoa ulertu. Bake arraroaren denbora hauetan ere, borroka da bidea. ■

Egitasmo bat, arren

Karmelo Landa
HISTORIALARIA
@karmelolanda

Euskal herritarron nortasun kolektiboa gaur interrogazio zeinu bat da. Aniztasuna azpimarratu izaten dute *statu quo* horren defendatzaileek, oraingo epeltasunean eroso sentitzen direnek. Umorerik ez duen broma txar bat iruditzen zait hori. Ze ispilutan begiratu behar dugu euskaldunok geure burua ikusi eta ezagutzeko?

Demokrazia plantak egiten dituzten sistema politiko inposatzaile eta asimilatzaileen mende bizi gara, eta noraezean baino gehiago, kontrako norabidean goazen sentsazioa dugu sarritan. Ez gara gure buruaren jabe, eta gainera ez dugu ikusten, goazen bide horretatik, inoiz hori lortzeko modurik. "Gure esku dago", esaten diogu elkarri, baina ez dago, gaur gaurkoz, hori sinesteko modurik. Erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, baina zer erabaki daitekeen eta zeren inguruan egin dezakegun hautua ere ez dakigu.

Euskal Herriak egitasmo kolektiboa behar du, nazio-antolaketa demokratikoa burutzeko plangintza zehatz, argi eta egingarria. Ez da berez sortuko, ez da oraingo sistema politikoaren joko libretik sortuko, hain zuzen ere joko hori ez delako batere librea. Demokraziaren eta aniztasunaren ilusioaren azpitik, une honetako eremu politiko-instituzionalak egundoko kateak eta loturak ditu *statu quo* horrekiko. Ez da berez hori hausteko gauza, ez da norabidea erabat aldatzeko gai.

Nondik eta nola egin, orduan, euskal herritarrok behar dugun mugimendu garrantzitsu hori? Nola finkatu norabide berriaren iparra, nola lortu Euskal Herrian nazio demokratiko burujabea antolatzeko behar ditugun arkitektura eta baliabide egokiak?

Euskal Herria nazio demokratiko moduan antolatzea helburutzat hartzen duen egitasmo kolektiboa zehaztu behar dugu. Hau ez da berez sortuko gaur egun Iruñean, Gasteizen edo Baionako parlamentu eta foroetan lanean diharduten alderdi politiko, instituzio edo erakundeetatik, horien guztien egitekoa indarrean dauden sistema politikoen mugetara eta egunerokotasuneko akordio taktikoetara lotuegi dagoelako. Dimentsio estrategikoa duen egitasmoa behar dugu Euskal Herrian, eta horretarako orain indarrean dauden sistema politiko-instituzionalen muga eta lotura guztien gainetik begiratzeko ahalmena behar da.

Euskal Herria nazio demokratiko moduan antolatzea helburutzat hartzen duen egitasmo kolektiboa zehaztu behar dugu. Hau ez da berez sortuko gaur egun Iruñean, Gasteizen edo Baionako parlamentu eta foroetan lanean diharduten alderdi politiko, instituzio edo erakundeetatik, horien guztien egitekoa indarrean dauden sistema politikoen mugetara eta egunerokotasuneko akordio taktikoetara lotuegi dagoelako

Euskal Herria ezkerretik eraiki? Eskuinetik eraiki? Ez da egitasmo kolektibo hori alderdi batek edo besteak, ezkerreko indarrek edo eskuinekoek, klase sozial batek edo besteak bere kabuz soilik defini dezakeen zerbait. Gauza jakina da, edozein herritan bezala Euskal Herrian ere klase sozialen arteko gatazkak, edota genero, hizkuntza, adin edota beste hainbat desberdintasunen arteko lehiak bizirik eta maiz gori-gorian dirautela. Euskal Herrian nazio demokratikoa antolatzeak ekarri behar duena, hain zuzen ere, kondizio eta baldintza desberdin horiek guztiak, lehenik aintzat hartu eta ondoren modu demokratiko eta baikorrean konpontzeko antolaketa kolektibo adostua delako.

A priori bakarra jar daiteke, beharbada, egitasmo hori abiatzerako orduan, jarrera politiko ideologikoa ez dena, konstatazio hutsa dena: Euskal Herria badela, herria dela, eta horregatik, hain zuzen ere, herri honek bere buruari nazio antolaketa demokratikoa emateko bere baitako eskubidea duela, eta horretarako gaitasuna berezkoa duela.

Gauzak horrela, eta egitasmo hori ezinbestekoa dugunez, norbaitek lan horretara deitu beharko gaitu, era, klase eta kondizio guztietako euskaldunok, Euskal Herria nazio demokratiko gisa pentsatu, diseinatu eta ondoren gauzatzera. Gure esku, guztion ereduz, guztion erabakiz. ■

ESKOLA-BARATZEAK
ETA HORIEN ERABILPEN DIDAKTIKOA

Online Ikastaroa Jakoba Errekondorekin

Irailak 17- Apirilak 26

Kod. @20-18

UDA IKASTAROAK

Miramar Jauregia - Mirakontxa Pasealekua - 4820007 Donostia - T.: 943 219511 - info@uik.eus - **www.uik.eus**

Antolatzaile nagusiak

Ikastaroaren laguntzaileak

GIZARTEA

GAZTETXE BAT HAUTESKUNDEEN ZURRUNBILOAN

Maravillas gaztetxea hustea pentsatutakoa baino arazo gehiago ekartzen ari da Nafarroako politikara. Gisa honetako hamaika auzi ikusi ditugu azken hamarkadetan han-hemenka, baina hemen arazoak aldaketaren alderdien arteko harremanak biziki estutu ditu. Dagoeneko denak dira datorren maiatzeko foru eta udal hauteskundeei begira.

Xabier Letona
@xletona

Hilaren 27an milaka lagun bildu ziren Maravillas gaztetxearen alde Iruñean, gehienak gazteak.

ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA

Argazki txikian, Foru Polizia hilaren 17an gaztetxea husten.

ARGAZKIA: @SAIOAALKAIZA

Iruñea, abuztuak 17, 05:00ak dira. Ordu txikietan hasi da Foru Polizia Maravillas gaztetxean iragarritako hustuketarekin, Nabarreria Plazan. Txirrin dantza ere berehala hasi da Alde Zaharreko atarietan, sare sozialak ere sutan dira laster eta auzokoen lapiko soinua ere ozen entzuten da balkoietan. Auzo bateko gaztetxe baten auzia hauteskundeekin gurutzatu da eta emaitzak latzak izan daitezke aldaketaren alderdientzat.

Goizeko 10ak pasatxo ziren Foru Poliziak azken gazteak atera zituenean eta 14:00ak pasa Nabarreria plazatik alde egin zuenean, Gaztetxea itxita eta zigilatuta utzi ondoren. Jakin gabe ere, ordea, ez dirudi dena pentsatu bezain itxia utzi zutenik, gerora ikusiko zen bezala. Goizean zehar, herritarren protestak eta poliziaren oldarraldiak izan ziren. Tentsioa, haserrea, kolpeak, zaurituak, bala galduak lurrean… Atxiloturik ez, ordea. UPNren garaian bezala itxi zen Maravillas gaztetxea, baina maila txikiagoko errepresioa erakutsi nahi izan zuen foru gobernuak, desberdintasunak badirela agertu nahian.

Irudi asko utzi zituen goizak, baina bat berezia izan zen, besteak beste, gaztetxeak entzun behar izan duelako memoria historikoa bere alde erabiltzen ari dela. Bi egun lehenago, abuztuaren 15ean, Maravillas Lamberto omendu zuen gaztetxeak –1936ko egun honetan bortxatu eta hil zuten faxistek Larragan, 14 urte zituela– eta bertan izan zen Josefina Lamberto (1929), Maravillasen ahizpa gaztea. Rozalejoko Markesaren Jauregitik kanporatuak izan ondoren, Josefina Lambertok bere sostengu argia adierazi zien gazteei: foru poliziei erreta egin zien Nabarrerian eta Mercaderes kalean dozenaka gazte egurtu zituen polizia hesiaren aurrean. "Injustizia handia da hustuketa hau", esan zion geroxeago *Info7 irratia*-ri. Bi egun lehenago ahizparen omenaldian pozarren izan zela zehaztu zuen eta gazteei gonbite argia luzatu zien: "Nik egin dudan bezala, haiek ere borroka dezatela, badute horretarako indarrik eta".

Abuztuaren 17ko arratsaldea, Nabarreria plaza gazteek Maravillas gaztetxea berrokupatu zuten unean.

ARGAZKIA: XABIER LETONA

Berrokupazioa

Maravillas gaztetxeak 18:00etarako deitu zuen batzarra Gazteluko plazan eta mila lagun inguru abiatu ziren manifestazioan Alde Zaharreko kaleetan barna. Espainiako poliziarekin tentsio uneak izan ondoren, azkenean 1.500-2.000 bat lagun iritsi ziren Nabarreria plazara eta pankarta atearen aurrean jarri zen, berau estaliz. Zerra erradial baten hotsa entzun zen puntuan eta erre usaina barreiatu zen plazan. Oso denbora gutxian ordu batzuk lehenago itxitako atea irekitzen ikusi zen eta ziztu bizian dozenaka lagun sartu ziren barrura, plaza osoa aho zabalik utziz eta herritarren txalo eta oihu artean.

Berrokupazioak ezustean harrapatu zituen gehienak. Gazteek jakinarazia zuten berriz sartuko zirela, baina ez zekiten saioa noiz egin, egunean bertan edo ondorengoetan. Goizean goizetik izandako sostengua eta Gazteluko plazako batzarrean jende asko zegoela ikusi ondoren, argi zuten: "Orain da unea".

Ezusteko handiagoa iritsi zen 18ko eguerdian. Gazteak pozarren eta erresistentzia berriz antolatzen ari zirenean jakin zen albistea: foru gobernuak gaztetxea husteko agindua bertan behera utzi zuen eta epaileak artxibatu gobernuak jarritako salaketa bera. Azalpenen arabera, gobernuak ez zuen ordena publikoa arriskuan jarri nahi, bereziki ikusita "adingabe asko zirela eraikuntzan eta haren inguruetan". Aurreko egunean berdin ziren adingabe horiek hor, baina hori ez zen eragozpena izan gaztetxea husteko.

Zer gertatu zen atzera egiteko? Inor gutxik ulertu du. Kritika zaparrada etorri zaio Nafarroako Gobernuari esparru politiko osotik, oposizioaren aldetik oso gogor, eta aldaketaren alderdietatik ere bai, baina hauek poza ezkutatu gabe, elkarrizketari bide eman diolako. UPN, PSN, PP eta Geroa Baik hustuketa babestu dute, eta EH Bildu, Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra aurka agertu dira. Epaileak salaketa artxibatu ondoren, gobernuak helegitea jarri dio erabaki horri.

Gobernua kolokan

"Ez dakit aldaketaren alderdiek akordioaren bidea berresturatuko duten, baina okupazio honen inposaketa intrantsigentearekin oso ukituak geratu dira 2015eko zumeak" (*Diario de Noticias*, abuztuak 21). Aldaketaren gauzatzean eta sostenguan garrantzi handia izan duen hedabideko zuzendari Joseba Santamariaren hitzak dira; kritikak kritika, medioak foru gobernuaren jarduna gertutik haizatu eta, oro har, sostengatzen du, besteak beste Maravillas gaztetxearen auzian.

AHTko lanak, Nafarroako ubidea, euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan, Hezkuntza Saileko arazoak, Aroztegia auzia, ikuspegi ekonomiko liberalagoa izatea edo ez, euskal gatazka, aurrekontuak… 2015ean aldaketaren alderdiek sinatutako akordio programatikoan kontsentsutik at utzitako gaiak edo legealdian zehar arazoak ekarri dituzten puntuak dira hauek, baina ez, Santamariaren ustez Maravillas gaztetxea da aldaketa kolokan jarri duena.

Nafarroan dagoeneko gertatzen den ia guztia irakurtzen da 2019ko maiatzeko foru eta udal hauteskundeei so. Horrek ez du esan nahi, ordea, auzi honen aktore guztiak horri begira ari direnik. Gazteak legealdiaren hasieratik ari dira gaztetxearekin gora eta behera, eta gobernuak orain arte itxaron du hauek

MARAVILLAS GAZTETXEA

XABIER LETONA

MARAVILLAS GAZTETXEA

MARAVILLAS GAZTETXEA

XABIER LETONA

XABIER LETONA

Ezkerretik eskuinera eta behetik gora: Maravillas gaztetxean egindako bertso saioetako bat; elikadura bankua antolatu dute gazteek eta hemen bildutakoa; taberna eraiki zuten sarreran finantzaziorako; Paradisu Zinemaren saioetako bat; gimnasioa egin dute eta bertan lantzen dute, esaterako, autodefentsa; Lapiko Txiki Jantokia, gaztetxearen finantzaziorako irekitako beste bide bat.

Nabarreriatik kanporatzeko, okupaziotik urtebetera. Gainerako indar politikoek ere ez dute burrunba handirik atera gaiaz. Denentzat da gai arantzatsua, besteak beste, okupazioak legalitatearekin egiten duelako talka, bai Iruñean eta bai beste edozein lekutan ere. Kontua da arantza hori nola kudeatzen den eta horretarako molde ugari dira, adibide askotan ikus litekeen tankeran.



Maravillas Lamberto zenaren Josefina ahizpa gaztetxearen hustuketa egunean: lehenik foru poliziari errieta egin zion Nabarreria plazan eta ondoren gazteak agurtu zituen polizia hesiaren aurrean.
EZKERREKO ARGAZKIA: EKINKLIK

Hainbat gaztetxe, hainbat jarrera

Nafarroako Gobernua eta Geroa Bairentzat okupazioa guztiz salagarria da, legearen eta interes publikoaren aurkakoa. Auzi honen ageriko ertz nagusia hori da: 2017ko irailean gazte talde batek 20 urte hutsik zeraman eraikina okupatu zuela. Uxue Barkos lehendakariak, gainera, gazteen irtenaraztea bideratu baino egun batzuk lehenago Rozalejoko Jauregia memoria historikoaren institutua izango zela iragarri zuen, memoria lantzen dutenen esparruan ika-mika sortuz.

Orain hil ala biziko den okupazio-legalitatearen binomioa ez da beti hain premiazko edo erabakigarria izan, ez UPN ez PSNrentzat, ez Geroa Bairentzat, ezta EAJ edo PPrentzat ere. Molde askotako jokaerak dira Euskal Herriko ehundik gora gaztetxeetan eta proklamen gainetik, azken hamarkadatan hamaika posizio eta eskuhartze daude gaztetxeekiko.

Nafarroako erregionalistentzat orain Maravillas hustea ezinbestekoa bada ere, gogoratzekoa da Euskal Jai gaztetxeak hamar urte iraun zuela (1994-2004), Javier Chorraut (PSN) eta Yolanda Barcina (UPN) alkate zirela. Azken honek agindu zuen hura hustea eta eraistea eta orduko udal taldeko oposizio guztiak (PSN, EAJ, EA, Aralar eta Ezker Batua) gogor kritikatu zuen irtenaraztea.

Kukutza eta Kortxoenearen eraisteak babestu zituen EAJk Bilbon eta Donostian legalitatearen izenean, baina 2007an Alfonso Alonso PPko Gasteizko alkateak orain 30 urte bete berri duen Gasteizko gaztetxea eraitsi nahi izan zuenean bakarrik geratu zen.

Nafarroan aldaketaren indarrek sostengatutako hainbat udaletan dira gaztetxeak, baina ez da halako harrabotsik izan. Zergatik, orduan, Maravillas gaztetxearekiko hau guztia? Arrazoi eta hipotesi ugari daude, batzuk adierazitakoak eta beste batzuk ez. Kazetari hau saiatu da Nafarroako Gobernuko norbaitekin hitz egiten gaiaz baina ez du erantzunik jaso.

Hipotesiak

Gaur egun lau alderdik sostengatzen dute Barkosen gobernua, baina hori errepikatzea ez da samurra izanen datozen hauteskundeetan, besteak beste, Ahal Duguk bizi duen barne gatazkarekin oso gaitza izango delako 2015eko emaitzak eskuratzea. Pentsatzekoa da 2015ean bi bloke nagusiek berdinketa egin bazuten foru hauteskundeetan, orain ere ez direla urruti ibiliko.

Baina lau urtetan hainbat kontu alda daitezke eta dabilen hipotesi nagusian, Geroa Bai ibili liteke balizko beste eszenatoki bat ere prestatzen, non ardatza Geroa Bai-PSN litzatekeen, Ahal Dugu eta Ezker Batuarekin batera. EH Bildurentzat txarrenetakoa izan litekeen egoeran, gainera, gerta liteke laukote horrek EH Bilduren beharra izatea gobernatu ahal izateko. Eta bestela UPN gobernura, PSNren sostenguarekin. Tira, zenbaki zehatzetan sartu gabe analisi arinegiak ere izan daitezke hauek, baina hor nonbait da hipotesi honen ardatz nagusia: gaztetxearen aurkako operazioarekin, Geroa Baik zentro-eskuinetik irabaztea luke xede nagusi. Jakina, gero ez da ulertzen zer irabazten duen kanporatzea bertan behera utziz.

Orduan? Beste hipotesi bat da gobernuak gutxietsi egin zuela kanporatzeak ekarriko zion kostua eta atzera egin duela gatazkaren pilota handitzen ikusi duenean, errepresioa handitzetik nekez aterako duelako irabazpiderik. Bitartean, denbora irabazi du egoera elkarrizketaren bidez berbideratzeko.

Beste aukera bat

Akordioaren bidea ez da erraza izango. Maravillaseko gazteak biziki indartu dira jokaldi honetan eta ez daude bertatik alde egitekotan. Gobernuak ere berean jarraitzen du: memoria historikoaren egoitza nahi du hor. Hainbat arrazoi dela eta, 2017ko irailean gazteak ez ziren iritsi indarrez soberan jauregiaren okupaziora, baina urte honetan, apurka, jakin izan dute Alde Zaharreko herritarren kopuru esanguratsu baten atxikimendua irabazten: auzolana eraikina konpontzeko, jantokia ireki, Paradisu zinema, gimnasio bat, euskara klaseak antolatu, elikagaien bankua, bertso eskola, musika estudioa, bilkura gune ere bada kolektibo askorentzat eta zarata gehiegirik ere ez dute egin berez saturatua den Nabarreriako eremuan…

Horietako batzuk besteak baino arrakastatsuagoak izan dira, batzuk hasi eta berehala desagertu edo ahuldu dira, besteak sortu eta indartu, baina oro har, norabide bat finkatu dute eta gaztetxea sendotuz eta sozializatuz joan da nabarmen. Legaltasun kontuetan gehiegi sakondu gabe, herritar askok nahiago du gazteak halakoetan ikustea, auzoa eginez, taberna zulo eta kale kantoietan galduta baino. Azken egunean, halaber, errepresioak ere zementu lan handia egin du atxikimendu bilketan.

Gobernua eta Iruñeko Udala

Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko ika-mika ere piztu du

gatazka honek. Joseba Asiron Iruñeko alkateak bitartekari eskaini du bere burua eta honek sutan jarri du foru gobernua, bere ustez gazteei lekuak eskaintzeko eskumena udalarena delako eta Maravillas gaztetxean honek eskuak garbitu dituelakoan. Horrez gain, maiatzean Iruñeko Udalak Rozalejoko Jauregiaren baldintzak aztertu zituen eta hainbat jarduera ez egiteko agindua luzatu zuen, besteak beste kontzertuak. "Maiatzean eta ekainean, alkateak gaztetxean edozein aktibitate egiteko debekuak sinatu zituen. Eta gero atera da esatera gaztetxea hor egotearen alde dagoela. Hor egon zertarako? Deus ez egiteko? Ez dugu ulertzen", zioen Maria Solana gobernu eledunak *Euskalerria Irratia*-n. Gazteek gaztetxean egindako jarduera beste toki batzuetan ere egin dezaketela gehitu zuen, "Redin Cruzat Jauregia horretarako egokitu dute".

Jauregi hau Iruñeko Kale Nagusian dago eta *Plazara* proiektua du udalak bertan. Une honetan halako beste hiru proiektu ere abiarazi ditu udalak, auzokideek autogestioan bideratzeko, Joxe Abaurrea Hiri Bizigarri eta Etxebizitza zinegotziak (EH Bildu) dioskunez. "Esparru komunitarioak" deitzen dituzte. "Esperimentu berria da hau eta auzo bakoitzean bertako bizilagunek kudeatuko dituzte guneak, gu hor ez gara sartzen". Beraz, gazteek ere hor dute euren proiektuak bideratzeko aukera bat. Hala gertatzen ari da Mendillorri auzoko Antzara proiektuan –ia milioi bat euroko inbertsioa eraikuntza berrian–. Txantrean berdintsu ari dira egiten salestarren proiektuarekin –beste milioi bat euro–. Buztintxurin, Arrosadian eta beste auzo batzuetan gauzatze bidean dira esparru komunitario hauek.

Abaurrearen esanetan, "guk zera diogu, bai autogestioari, bai gaztetxeei, baina eraikinak seguruak izan behar dira, udal batek ezinbestean arduratu behar baitu bere herritarren segurtasunaz". Solanak aipatutako debekuei dagokienez ere argi mintzo da: "Guk ez ditugu debekuak egin, jakinarazpenak baino, zentzu positiboan jokatu dugu, jarduerak egiten badira, toki seguruan egin daitezen".

Udala eta gaztetxea

Udalak, dena den, izan du ika-mikarik orain Maravillas kudeatzen ari diren gazteekin, batez ere 2015ean hauek Compañia kalean gobernuaren eraikin bat okupatu ondoren, udalak Caparrosoko txaleta eskaini zienean. Harreman hauetan izan zen tira-birarik, eta 2016ko udan, udalak gazteekiko akordioa bertan behera utzi zuen hauek "egindako akordioa bete ez zutelako".

Gazteek zarata handiegirik egin gabe alde egin zuten bertatik, baina 2017ko udaberrian udalarekiko harremanak hautsi zituzten eta irailean Nabarreriako jauregia okupatu zuten. Gazteek diote instituzioen izaera eta erritmoa, eta gaztetxearena guztiz desberdinak direla eta horregatik ekin ziotela beren bideari, gaurdaino iritsiz. Edozein kasutan, salatu dute Nafarroako Gobernuak Maravillas gaztetxeko kanporatzean udala nahasteko egin duen ahalegina, auzia Nafarroako Gobernuarena dela azpimarratuz. Caparrosoko txaletari dagokionez, eraikina bestelako beharretara bideratuko da.

Borondatea

Kontua da gobernuak atzera egin zuela kanporatze aginduarekin eta orain aukera berri bat dagoela gatazka bideratzeko. Ez da erraza izanen. Irtenaraztearen bezperetan gobernuak elkarrizketa eskaini zion gaztetxeari, gazteen esanetan uztailaren 14ko arratsaldean, hurrengo egunean Foru Jauregian bilera egiteko Uxue Barkosekin.

Gazteek hurrengo egunean Maravillas Lamberto omendu behar zuten gaztetxean eta gainera adierazi zioten gobernuari ez zutela euren batzarra egiteko denborarik. Horregatik ostegunerako proposatu zioten elkarrizketa gobernuari. Honek ez zuen onartu eta "gazteen agenda arazoak" gogor kritikatu zituen, are gehiago lehendakaria haiekin biltzeko prest agertu ondoren. Gazteek diote haiei berdin zaiela lehendakariarekin edo beste norbaitekin hitz egin, baina euren izaera asanblearioa errespetatu behar dela eta ez jarri bete ezineko baldintzak; gobernua abuztuaren 15ean hitz egiteko prest egonez gero, ez dela ulertzen zergatik ezin zuen 16an hitz egin, gazteek proposatu bezala.

Auzia latza da, tentsioz betea eta hala jarraituko duela antzeman liteke. Inork ez daki nola buka dezakeen, baina alde guztiek beharko lukete nahi adinako malgutasuna akordiora iristeko. Hori, baina, esatea gauza bat da eta lortzea beste bat. ■

» Barcinak agindu zuen Euskal Jai gaztetxea hustea eta eraistea eta orduko udal taldeko oposizio guztiak (PSN, EAJ, EA, Aralar eta Ezker Batua) gogor kritikatu zuen irtenaraztea

» Nafarroan aldaketaren indarrek sostengatutako hainbat udaletan dira gaztetxeak, baina ez da halako harrabotsik izan. Zergatik, orduan, Maravillas gaztetxearekiko hau guztia?

» Urte honetan gazteek jakin izan dute Alde Zaharreko herritarren kopuru esanguratsu baten atxikimendua irabazten

María Jesús Balbás

“Menopausia okerren bizi dugunak europarrak gara”

María Jesús Balbás Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatua da, esperientzia handiko homeopata eta ginekologoa. 2008an *Bueno chicas, esto se acabó: Una guía para desdramatizar la menopausia* (Neskak, hau bukatu da: Menopausia desdramatizatzeko gida) eta 2009an *Guía para una menopausia (casi) perfecta* (Menopausia -ia- biribila izateko gida) liburuak idatziak ditu. Zarautzen dauka kontsulta. Elkarrizketan menopausia duen emakume ahul, triste, antzu eta gaixoaren irudiaren aurka egiteko tresnak eskaini ditu.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
Ane Labaka Mayoz
@anepirata

Zer da menopausia? Definitzeko zaila izan daiteke agian…

Definizio erraza dauka. Menopausiak data jakin bati egiten dio erreferentzia, azken hilekoarenari. Menalgia lehen hilekoa bada, menopausia azkenekoa da. Emakumearen bizitzako garai fisiologikoa da, ugalkortasun aroaren bukaera zedarritzen du, besterik gabe.

Zaila dena da garai honen inguruan egin den eraikuntza. Gizarte honetan emakumearen bizitzan gertatzen den guztia estigmatizatu eta ikusezin bilakatzen da. Helburua emakumea desboteretzea da, denerako medikuen laguntza behar duela sentitu dezan: hilekorako, haurdunaldirako, erditzeko, erditze osterako, edoskitzeko edo ez edoskitzeko, eta azkenik, menopausiarako. Medikalizazio hori industria farmazeutikoarentzat onura baino ez da eta beldurraren bidez lortzen da.

Erdi Aroan Eliza baliatzen zen eta gaur egun zientziaren izenean egiten da. Mehatxu honi aurre egiteko, ezinbestekoa zaigu genero ikuspegia izatea.

Zure lehen liburuaren izenburuan “Neskak, hau bukatu da” diozu, zer da zehazki bukatu dena?

Gauza dezente. Ugalkortasuna bukatzen da eta emakumeen gehiengoari zoragarria iruditzen zaio, ez baitut uste emakume asko egongo denik adin batetik aurrera haurdun dagoela jakinda pozez saltoka hasiko litzatekeenik.

Hala ere, badago dolu bat eta ezin dugu ukatu. Dolua emakumeengan soilik ematen da, gainerako ugaztun guztiek hil arte erditu baitezakete. Berezitasun honek galdera asko sortu izan ditu, emakumeak ia bizi erdia pasa baitezake ugalkorra izan gabe. Hipotesi ugari daude eta azkenaldian “amonaren hipotesia” da nagusi; badirudi emakumeek hilekoa eteten dutela biloben hazkuntzan lagundu ahal izateko.

‘Lagundu’ aditza azpimarratu nahi nuke. Gaur egun normaltzat hartzen da amona biloben kargu egitea, baina argi dago gure gizarte ereduaren isla dela. Norvegian, Alemanian eta beste zenbait herrialdetan, esaterako, bi urteko amatasun-baimenak daudenez, kontua oso bestelakoa da.

Beste gai bat ere badago: garai horretan emakumeak arreta bere buruarengan jarri dezake. Bizitzan lehen aldiz agian, sentitu dezake ez daukala bere arretaren %99a eskaini behar dion inor.

Menopausia bizitzeko moduan testuinguru sozio-kulturalak eragin zuzena daukala dirudi.

Bai, hilekoaren antropologiari erreparatuz, emakume afrikarrek honakoa esan ohi dute menopausiara iristean: “Dagoeneko ez nau ilargiak bisitatzen, orain ni naiz komunitate osoa sostengatzen duena eta ez lehen bezala nire seme-alabak soilik”.

Mujeres sin pausa filma gomendatzen dut, munduko hainbat lekutako esperientziez hitz egiten duena. Pelikulan argi ikusten da antsietate handienarekin eta okerren bizi dugunak europarrak garela, desboteretuta eta galduta gaudelako. Bizitza osoan oso dramatikoa dela esan dizutenez eta sinetsi duzunez, menopau-

sia oso dramatiko bizitzea espero duzu. Menopausia desdramatizatu behar da.

Desdramatizatu beharrean estigmatizatzera jotzen da, ordea.

Emakumeari gertatzen zaizkion gauzetan, erreakzioa "ai, zer pena!" da beti. Umeari hilekoa jaitsi zaio 13 urterekin eta "ai, zer pena!", 11 urterekin jaitsi zaio eta "ai zer pena, ezta?", 14rekin ez zaio jaitsi?... "Ai!". 20 urterekin haurdun geratu da... "ai, denbora galduko du, zer pena!", 35ekin... "bada zer pena, bakarra eduki ahal izango du, zer pena, lehenago eduki behar dira!". 40rekin eduki du... "zer pena!". Ez dauka umerik... "zer pena!". Zesarea izan du... "zer pena!", bere kabuz erditu du... "ai zer pena!", bularra ematen du... "ai zer pena", edoskitzea luzatu du... "ai zer pena", lau hilabetez bakarrik eman dio bularra... "ai zer pena!", ez dio eman... "zer pena!". Gero menopausia iristen da eta... Baina ea, ez al zen pena hilekoa edukitzea? Orain akaso pena da ez edukitzea ere? Niri kontuak ez zaizkit ateratzen ongi.

"Emakume asko barazki-jale egiten dira menopausia garaian eta uste dut senak gidatzen dituela horretara".

Emakumearen bizitzako etapa fisiologiko guztiak gutxiesten dira. Adibidez, izugarria iruditzen zait hilekoa pilula bidez desagerrarazi nahi izatea. Behin ginekologo bati entzun nion ondokoa, berak aurrerapen bezala saltzen zuena: "Emakumeari lagunduko diogu bere prozesu osoan, lehenik hilekoa kenduko diogu, ez dezan sufritu; 25 urterekin obuluak atera eta laborategian gordeko dizkiogu, obulazioa geldiaraziz eta berak esan dezala noiz izan nahi dituen umeak. 37-39 urterekin garai egokia litzateke, bera pertsona bezala garatzen denean edo. Gero 'Hormona Bidezko Terapia Ordeztailera' igaroko gara zuzenean, menopausia izan ez dezan".

Hori ez da laguntzea. Ez dugu bere prozesua errespetatu. Menopausia emakumeak bere burua elikatzen duen unea da. Armairu garbiketa moduko bat da, behar ez den guztia bota eta lau gauzarekin geratzea, emozio zahar guztiak kudeatzea. Menopausia askatasun espazioa da, bat-batean norberarentzako denbora hartzea.

Zer esan nahi duzu "norberarentzako denbora hartzea" diozunean?

Lau oinarri nagusi aipatzen ditut beti. Dieta, ariketa fisikoa, barne isiltasunerako teknikak (meditazioa) eta, behar izanez gero, une egokia izan daiteke terapia bat planteatzeko. Agian, bakarrik ezin dugu gure armairuarekin eta mudantzarako beste bat behar dugu. Bizitzaren zentzuaz hausnartzeko unea da, heriotzaz, gauzen garrantziaz... Emakume askok bizi esperientzia oso gogorrak izan dituzte eta horretarako daude terapeutak.

Nire ustez tresna garrantzitsuak dira garai hori ebazteko, aldaketa txiki deserosoei eta gutxiesten zaituen gizarteari aurre egiteko. Funtsezkotzat daukat homeopatia ere, tratamendu pertsonalizatua egiten duelako eta azaleratutako

sintomen bidez sakoneko gatazketara irits gaitezkeelako. Asko errepikatzen dira: ardura gehiegi izatea, abandonu sentipena…

Argi izan behar da, hala ere, emakume bakoitza mundu bat dela eta emakume bakoitzak laguntza ezberdina beharko duela. Batzuek ez dute ezer behar. Benetan 'Hormona Bidezko Terapia Ordeztailea' behar duena %1 litzateke. Aitzitik, orokortzea eta medikalizatzea da joera nagusia, antidepresiboak eta somniferoak errezetatuz, adibidez.

Menopausia osasun galerarekin lotzen da eta, zehatzago esanda, hiru arrisku nagusirekin: miokardioko infartua, bularreko minbizia eta osteoporosia. Interesgarria da aztertzea zergatik dagoen bularreko minbizi gehiago garai honetan, egungo medikuntzak ez baititu zergatiak aztertzen. Psikosomatika klinikoan badakigu osteoporosiak autoestimarekin duela zerikusia, gutxiespenarekin eta ariketa fisikorik ez egitearekin. Elikadurarekin ere lotura zuzena dute gaixotasun horiek.

Elikadurari garrantzi berezia aitortzen diozu.

Oso garrantzitsua da. Ziklo sexuala aktibo daukagun artean, estrogenoak garatzen ditugun artean, egokia izan daiteke, esaterako, gantz saturatuak jatea, estrogenoen nukleoa kolesterola delako. Horregatik galdu ohi dute hilekoa argaldu nahian dabiltzan neska gazteek. Menopausiarekin, ordea, estrogenorik ez dagoenez, gantza pilatu egiten da, askotan arterietan, eta arazo kardiobaskularrak eragin ohi ditu.

Dietan gantz saturatu gutxi komeni da, haragi gutxi eta aldiz, barazkiek, frutek, lekaleek, haziek eta arrainak lekua izan behar dute. Emakume asko barazki-jale egiten dira garai honetan eta uste dut senak gidatzen dituela horretara. Besteentzako beharrean norberarentzat janaria prestatzen ikasteko sukaldaritza tailerrak egitea ere egokia da eta, bide batez, elikadurari buruz hitz egitea. Janari biologikoa eta irin integralak kontsumitzea ere bai.

Garai batean 'Hormona Bidezko Terapia Ordeztailea' salbazio bezala saltzen zuten, bai beroaldientzat baita aipatu ditudan gaixotasunentzat ere. Baina denborarekin argi geratu da ezetz, ez daukala zerikusirik eta bidea beste bat dela; dieta eta ohiturak aldatzea.

» "Armairu garbiketa moduko bat da, behar ez den guztia bota eta lau gauzarekin geratzea, emozio zahar guztiak kudeatzea. Menopausia askatasun espazioa da, bat-batean norberarentzako denbora hartzea"

» "Hormona Bidezko Terapia Ordeztailea behar duena %1 litzateke. Aitzitik, orokortzea eta medikalizatzea da joera nagusia, antidepresiboak eta somniferoak errezetatuz, adibidez"

Orduan norentzat litzateke 'Hormona Bidezko Terapia Ordeztailea'?

Menopausia goiztiarra duenarentzat, obarioak kendu dizkiotelako edo arrazoi ezezagunak tarteko 36 urterekin menopausia iritsi zaiolako. Hori, noski, gaixotasun bat da, ez da soilik prozesu fisiologiko bat. Zesarearekin alderatzen dut nik. Egin behar da zesarea? Bai noski, beharrezkoa denean, baina ez sistematikoki kasu guztietan. Berdin gertatzen da terapia honekin.

Asko kezkatzen nauen beste ideia bat da emakumeak garai honetan depresioa pairatzen duela esatea. Baieztapen horrek depresioarekiko ezezagutza handia adierazten du. Emakumeak menopausian egiten duena aurrez esandakoa da, armairuaren garbiketa, eta batzuek horri aurre egiteko baliabideak eskura dauzkate, baina beste askok ez.

Adibidez, ariketa fisikoa egiten bada, gaba izeneko neurotransmisore bat askatzen da, angustia, antsietatea eta loezina eragozten dituena, eta gorputz-dardarak eragoztera ere irits daiteke. Gure garuneko neuronen %85 gabaergikoak dira, hau da, gaba jasotzen dute. Orduan galdera honakoa litzateke: nola produzitzen dugu gaba? Egunero, oinez, ordu eta erdi ibiltzen den emakumea gaba fabrikatzen ari da, eta ondorioz, gatazka ugariri eta osteoporosiari aurre egiteko gai izango da. Gainera, hobeto sentituko da bere buruarekin. Zirkulazio eta digestio arazoak ere saihestuko ditu. Ariketa fisikoa garai horri aurre egiteko oinarrietako bat da, beraz.

Menopausia berdefinitu beharko genukeela uste duzu?

Bai, argi dago menopausiak baduela kutsu gaitzesgarri bat. Irakaslea izan naiz urte askoan eta ikasleei eskatzen nien menopausia hitza entzunda burura etorritako lehen gauzak zerrendatzeko: zaharra, heriotza, minbizia, jasangaitza, histerikoa, desorekatua…. Izugarria da. Klimaterioa [menopausia aurreko eta ondorengo garaia] esanda "etapa, iritsiera, ebazpena…" aipatzen zituzten, baina berdina da. 'Menopausia' hitza bera katastrofikoa da. Nik uste ezin dugula atzerantz egin hitzak berak pisu handia duelako eta oraingoz ezin dugulako hitz hori ezabatu, baina esanahia aldatu behar diogu.

Horretarako, lehenik eta behin, emakumeak genero ikuspegia izan behar du, ahalduntzea baita bidea. Ideala litzateke 13 urte inguruko neskekin hastea lehen prozesuan bertan, hilekoan, dagoeneko ez dezaten madarikaziotzat hartu. Menopausiara iristea klimax momentu batera iristea litzateke.

Ezin dugu ahaztu, ordea, nondik gatozen. Medikuntzaren aitatzat hartzen den Hipokratesek zioen emakumeen bizitzan menopausia garai beldurgarria zela, garai horretan emakumea deskonposizioan zegoen hilotz bilakatzen zela, sorgin.

Adin ezberdinetako emakumeen zirkuluak sortu behar ditugu. Ez dugu itxarongo salbatu gaitzaten. Profesionalik gabeko eremu egokiak lirateke lekukoa pasa eta nerabeei bizitzako hainbat garairi buruzko informazioa transmititzeko. Uste dut kontzientzia hartzeak horrela izan behar duela, transbertsalki eta zirkuluan, emakumeek behingoz beren buruari buruz hitz egiteko baimena izan dezaten. ■

Irauletza Txikien akampada

Tres dias de buen vivir — *Trois jours de bonne vie*

Zubieta (Gipuzkoa) — Irailak 21-22-23

Elkarrekin hausnartu

Lurrikaren ordian, gu berri bat?

Eraso matxistak gure espazioetan
Trapu zikinak aztergai

Nerri mugimenduen borroka moldeak aztergai
gatazkak, biolentziak eta aliantzak

Beretik eraldatzen mugimendu txuri klase ertainekoetatik?

Jendarte likidoa, militantzia likidoak?
Eragikortasuna, konpromisoa eta antolaketa ereduak

Zergatik erasotu egiten dugu gizonok? Zer egin egiteari uzteko?

Nerri mugimenduak eta instituzioen arteko harremanak
Ezinak eta eginak

Procés catalá:
Euskal herrigintzarako ikasgaiak

Bizitza burujabetza
Alternatibak ezagutzen eta saretzen

Ekitaldia
Erraustegia gelditu zutenei aitortza

Erraustegira martxa

Lurraldearen birjabetza
Herri boterea bizitzarako espazioak berreskuratzeko

Bizitza burujabetza

Elkarrekin konspiratuz
Piztu ditzagun etxeak eta kaleak!

Elkarrekin konspiratuz

Otordu goxoak
Umeentzako espazioa eta jarduerak
Gaubelak!

LURRALDE ASKEA

Maritxu Urreta Zulaika (1915-2018)

Irakastea baino ikastea nahiago zuen bizizalea

Donostiarra 102 urterekin hil zen abuztuaren 13an. Bizitza luzea eta betea izan zuen. Etxean arnastu zuenak arrasto handia utzi zuen emakume biziarengan eta ez zen kasualidadez izan argazkilari, ilustratzaile, mendigoizale eta itzultzaile.

Onintza Irureta Azkune
@oirureta
ARGAZKIAK: BIDEGILEAK / URRETA FAMILIA

Emakume askok bezala, Urretak ere ez zuen uste inorentzako garrantzia izan zezakeen bizitza eduki zuenik. Nerea Azurmendik aditzera eman zuenez, tiraka xamar ibili behar izan zuen 2005eko neguan *Bidegileak* liburu sortarako haren bizitza konta ziezaion: "Maritxu Urreta Zulaika donostiarrak ez du ondo ulertzen zer dela eta izan dezaketen inolako interesik bere bizipenek. Ez zaio batere gustatzen bere buruaz hitz egitea (...) Bidegilea bera? Ez du horrelakorik uste. Bere bidea egin du, ez besterik". Hogeitaka orrialde dituen *Maritxu Urreta 1905* liburuxkan (interneten osorik dago) argi geratzen da ez zela izan XX. mende hasierako ohiko emakumea. Haren zaletasunak gauzatzen emandako pausoak ez ziren mende hasieran edozein emakumek emandakoak.

Sei hizkuntzaren jabe, eta euskara itzultzaile

Ikasle ona izan behar zuen Urretak, batez ere hizkuntzak ikastea zuen gustuko. 16-17 urte arte Donostiako San Bartolome ikastetxean aritu zen eta han hasi zen frantsesa eta ingelesa ikasten. Garai hartan gutxi bezala 19 urterekin Ingalaterrara joan zen ingelesa hobetzera. Ondoren italiera eta alemana ikasteari ekin zion, jatorrizko hizkuntzan idatzitako liburuak irakurri nahi baitzituen. Hala, gazte zela sei hizkuntza hitz egiteko gai zen, aipatu ditugun lauez gain euskaraz eta gaztelaniaz egiten zuen.

Euskara etxetik jasoa zuen, ahoz ederki moldatuko zen, beste kontu bat da ordea idaztea. Garai hartan euskaraz alfabetatutako asko ez zen izango. Urretak ordea, gurasoengandik hizkuntzaz gain hizkuntzarekiko maitasuna jaso zuen eta argi zeukan idazten ikasi nahi zuela. Maria Dolores Agirreri buruz hitz egin zioten halako batean, Donostian euskara eskolak ematen zituen idazle eta maistraz. Harekin ikasi zuen idazten, batzuetan ikaskideak zituela eta beste batzuetan bakarrik. *Maritxu Urreta 1905* (Bidegileak) liburuxkaren egileari, Nerea Azurmendiri, 2005 hartan aitortu zion Agirreren euskara maite zuela, trakeskeriarik, erdarakadarik eta mordoilokeriarik gabea.

Ikasitakoari zukua atera zion. 1960an adiskide zuen Luis Muñoyerroren lan bat euskaratu zuen, *Lartaun eguzki-smea* (Kuliska Sorta, Zarauzko Itxaropena argitaletxea). Hurrengo itzuli zuen liburua ere Muñoyerro lagunarena izan zen, eta orduan Maria Dolores Agirre irakaslearekin batera egin zuen. *En la luna también se habla vascuence* zuen izenburua zientzia fikzioko liburuak eta euskarazko bertsioa (*Illargian ere euskeraz*) gaztelaniazkoarekin batera argitaratu zuten. Ilustrazioak Urretak berak eginak izan ziren. 1976. urtean Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko aldizkariko editorialak euskaratzen hasi zen.

1997. urtean EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak ohorezko itzultzaile izendapena eman zion eta konpromisoa hartu zuen Urretaren eta harekin batera izendatu zituen beste zazpien itzulpen zatiak bilduko zituela liburu batean. Bada, Urretak Itzulpen Antologiarako propio egin zuen itzulpena. 82 urteak beteta zituela Alice Duer Miller (1874-1942) idazle estatubatuarraren *The White Cliffs* poema luzea ekarri zuen ingelesetik euskarara. *Itsas-malda zuriak* jarri zion izenburu.

Tontorrez tontor ibiltzekoa zen Maritxu Urreta. Mendigoizale eta eskiatzaile izan zen. Denboraldi batean ehun gailur egin zituelako saria eman zioten. Argazkilari amorratua ere bazen eta 7.000 argazkiko bilduma osatu zuen, gehienak mendian ateratakoak. Txikitatik zuen gustuko marrazkilaritza eta ilustraziogintzan egin zuen ibilbidean Jon Zabalo "Txiki" marrazkilaria eta irudigilea izan zuen irakasle.

GURASOAK

Aita, Mikel Urreta. Maritxu Urretak jakin-min handia erakutsi zuen txikitatik eta gurasoek hainbat zaletasun garatzeko grina horretan zeresan handia izan zuten, batik bat aitak. Urnietan jaioa, 1913an Donostiako Udaleko zinegotzi izan zen eta 1915ean Gipuzkoako diputatu. Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakari izan zen. Besteak beste, politikaz, euskalgintzaz eta nekazaritzaz hitzaldiak ematen zituen euskaraz. Euskaltzalea zen eta hainbat modutara saiatu zen euskara bultzatzen. Eusko-Esnalea elkarteko kide zen eta Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren sorrera ekarriko zuen 1918ko Oñatiko biltzarrean esku-hartze zuzena izan zuen. Euskaltzaleak kultur elkarteko buru izan zen.

Ama, Maria Zulaika. Urretaren amak eta amonak ere San Bartolome ikastetxean ikasi zuten. Maria Zulaika, senarra moduan, ekintzailea izan zen bizitza guztian. Gipuzkoako "Emakumeen" buru izan zen eta Donostiako kaiko arrantzaleen emazteekin aritu zen lanean. Maria Zulaikak bederatzi anaia zituen, horien artean Jose Gonzalo, gero Aita Donostia izango zena. ■

URRATS AITZINDARIAK ENERGIA BURUJABETZAREN BIDEAN

Energia eredu berriak lortzeko ezinbestekoak dira tokian tokiko proiektu txikiak, eta horiek geroz eta ugariagoak dira Euskal Herrian. Oraingoan, Izabako Udalak pausu garrantzitsua eman du: udal merkaturatzailea sortu du, energiaren produkzioa, garraioa eta merkaturatzea eskuratuz. Asko dira eredu horretatik ikasi nahi dutenak.

Ane Eslava Serrano @eslavaane

Argazkiak: Dani Blanco

"Gaur egun Euskal Herrian kontsumitzen den energia primarioaren %92 atzerritik ekarritakoa da, eta erregai fosiletan edota energia nuklearrean du sorburua; egoera tamalgarria da". Jesus Ezkurra Energia Gara taldeko kidearenak dira hitzak. Energia berriztagarrietan aditua da, eta egungo energia ereduak sortzen dituen kalteez ohartarazi du: "Gure gizarteak petrolioan eta gasean du oinarria; horiek gerrateak sortzen dituzte, eta gure gizartean, sekulako desberdintasunak. Gainera, ingurumenean kalte handiak eragiten dituzte".

Hori dela eta, energia trantsizioa premiazkotzat jotzen du Ezkurrak, eta tokian tokiko proiektuetatik abiatu behar dela uste du. "Aldaketak behetik hasi behar du, herrietatik eta hirietatik, udalak baitira biztanleok gertuen dugun erakundea". Horien ardura azpimarratu du: "Baliabideak kudeatzen dituzte, eta ahalmena dute energia eskubide gisa hartzeko, ez merkantzia gisa".

Hala ere, argi du trantsizio energetikoa martxan dagoela dagoeneko: asko dira Euskal Herrian euren baliabideen giltza eskuan hartu eta burujabetzarako bidea urratzen hasi direnak. Eredu ezberdinak daude; besteak beste, kooperatibak, udalek bideratutako egitasmoak eta proiektu komunitarioak. Adibideen artean daude Lizarraga, Araia, Izaba, Gares, Lakabe, Iruñea, Gasteizko Errekaleor auzo askean sortzen ari diren irla energetikoa... Txikitik eragitea dute helburu, konponbide globalak lortzeko.

Udalei dagokionez, hiru aukera dituzte, haien baliabideen arabera: energia ekoiztu, garraiatu edota merkaturatu. Izan ere, horiek dira elektrizitatearen sektorea osatzen duten hiru zutabeak. Ez dira gutxi horietako bat eskuratu duten herriak, baina Izaban (Nafarroa) pausu aitzindaria eman berri dute: udalak hiru agente horiek bere esku hartzea lortu du. Hego Euskal Herriko lehenengo udal energia merkaturatzailea sortu dute.

Erronkari bailarako 429 biztanleko herria da Izaba. 1960ko hamarkadatik martxan dagoen zentral hidroelektrikoari esker Belabarze eta Belagua ibaien emaria aprobetxatzen dute energia sortzeko. Udalak berak kudeatu du zentral hori hasieratik, eta urtean bi milioi kilowatt ekoizteko gai da. Zentralak ibaiaren ur emariaren arabera funtzionatzen du. Normalki, urritik ekainera bitartean produzitzen du energia, eta hurrengo lau hilabeteetan beste lan batzuk egiten dituzte: garbiketa, mantentze lanak, obrak... Aurten, ordea, euri asko egin du, eta produkzio historikoak izan dituzte.

1960ko hamarkadatik Belabarze eta Belagua ibaien emaria aprobetxatu izan du Izabako Udalak zentral hidroelektrikoarekin argindarra sortzeko, eta banatzeko kable-sistemaren jabe ere bada. Orain azken urratsa eman du: energia saltzea.

Bestalde, aspaldi herriko linea elektrikoa jarri zutenez, udala bere kable-sarearen jabe da, eta sortzen duen energia banatu ere egiten du. Oso herri gutxitako udalek dute energia sortzeko eta garraiatzeko aukera, gehienak elektrizitate enpresa handien menpe daude. Oraingoan, azkeneko pausua eman dute Izaban: energia saltzen hasi dira. "Orain dela hiru urte eredu energetikoa lantzeko udal talde bat sortu genuen, eta ikusi genuen ez zela zaila guk hirugarren faktore hori ere betetzea: energia saltzea", azaldu du Aitor Perez energiaren udal taldeko kideak.

Prozesua luzea izan dela aitortu du, izapide asko egin behar izan dituztelako. Hala ere, lortu dute: uztailaren 1etik



Rio Ezka udal energia merkaturatzaileak 280 bezeroren argindarra fakturatzen du. Orain, edozeinek kontratatu dezake zerbitzua, telefono edota internet bidez. Lehenik Izabako herritarrengana heltzea dute xede, baina Pirinioetako txoko gehiagotara zabaltzeko asmoa dute, izatez, Iberiar penintsula osora heltzeko ahalmena baitute. Hala ere, Perezen hitzetan, bezero berriak lortzea ez da erraza izaten ari, jendeari asko kostatzen baitzaio halako aldaketak egitea.

Prezioari dagokionez, energia saltzen hasi aurretik ez zekiten nola izango zen, eta ez zuten alde hori nabarmendu nahi izan. Baina ondoren konturatu dira haiek eskaintzen duten zerbitzua enpresa pribatuena baino pixka bat merkeagoa dela. Gainera, Izabako Udalak konpromiso bat hartu du: zentral hidroelektrikoak ematen dituen etekinak Pirinioetan sortzen diren proiektuetan inbertituko dituzte, eskualdeari bultzada emateko.

Egindako urratsarekin "zirkulua osatu" dutela azaldu du Perezek: "Prozesu osoa gure esku izatea lortu dugu, Pirinioek ematen dizkiguten baliabideei etekina ateratzeko". Hori lortzeko ezinbesteko faktoreak izan dira aldez aurretik ekoizpenaren eta banaketaren jabe izatea, eta guztia eskala txikian egitea, haren hitzetan. Emaitzarekin pozik daude: "Ez diogu alde txarrik ikusten".

Hasieran, merkaturatzailea sortzeari ekin ziotenean, uste zuten ez zutela ezer berririk egingo. Hori dela eta, orain "harrituta" daude: "Beste toki batzuetatik etorri zaizkigu, aholku bila". Herritarrak ere kontent daude zerbitzuarekin: "Modu independentean gure herriaren garapena bultzatzeko tresna ezinhobea da", adierazi du Patricia Alberdi Ezker Izabako biztanleak.

Merkaturatzailearen albistea jakin bezain laster erabaki zuen zerbitzua kontratatzea, bai etxerako, baita haren senarrak duen ostaturako ere. Hasieran prezioa zein izango zen ez jakin arren, ez zuen zalantzarik izan, proiektuak ahalegina egitea merezi zuela uste baitzuen. Hainbat arrazoirengatik hartu zuen erabakia. Batetik, gertutasuna aipatu du: "Ongi dago jakitea zure dirua nora doan, eta enpresan konfidantza osoa izatea". Bestalde, baliabide gutxi dituen Izaba bezalako herri txiki batentzat laguntza ekonomikoa garrantzitsua izango dela azpimarratu du. Momentuz, zerbitzuak ongi funtzionatzen duela gaineratu du.

IZABAKO EREDUA IRUÑERA ERAMANGO DUTE

Hirietako udalek prozesu konplexuagoak egin behar izaten dituzte energia burujabetzaren aldeko pausuak emateko; baina aukerak egon badaude. Iruñean, adibidez, udalak agintaldi hasieran eskura zituen aukerak aztertu, eta energia merkaturatzailea sortzea erabaki zuen.

Izabakoaren ostean, Hego Euskal Herriko bigarren udal energia merkaturatzailea izango da. Hala ere, prozesua ez da erraza izan. Izan ere, energiaren merkatua esklusiboa eta aldakorra da, eta udalak administrazio egitura egokia bilatu behar izan du orain arte enpresa handiek kudeatu duten lan hori egiteko.

Horretarako, udal energia agentzia bat sortu dute. Pleno bidez onartu zuten hori, laukoaren aldeko botoekin, eta UPNren eta PSNren aurkaritzarekin. Udalak Energia Gara kooperatibarekin batera egindako azterketa batek erakutsi zuen agentzia hori sortzea bideragarria zela. Orain merkaturatzailea sortzeko bidean daude, eta 2019ko urtarrilerako eginda egotea aurreikusten dute.

Behin merkaturatzailea sortuta, elektrizitatearen merkatuan energia berriztagarria erosi eta hori erabili ahal izango dute. Udalaren lehenbiziko helburua izango da erakunde publiko gisa dituen gastuei aurre egitea, elektrizitate saltzailerik kontratatu gabe. Hiriko argiteria eta eraikin publikoak hornituko dituzte.

Bigarren fasean, berriz, pobrezia energetikoa sufritzen duten familiei laguntzea izango dute helburu. Hala ere, energia guztiaren %20 soilik bideratu ahal izango dute arlo pribatura, sektore elektrikoaren legeak hori zehazten baitu. 2020rako gizarte-bazterketa egoeran dauden 3.000 edo 4.000 etxebizitza hornitzea espero dute.

Horrez gain, udalak Energiaren Plangintza aurkeztu zuen urtarrilean, hirian energia burujabetzan eta autonomian oinarritutako eredua ezartzeko helburuarekin. Horretarako, 22 neurri aurkeztu zituzten; horien artean etxebizitzetan instalazio fotovoltaikoak jartzeko inbertsioak handitzea, informazioa zabaltzea eta aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatzea, besteak beste.

Gasteizen, aukerak aztertzen

Gasteizko Udalak ere bide beretik jotzea erabaki du. Otsailean ikerketa bat egin zuten, Energia Gara taldearekin batera, baloratzeko ea bideragarria den udal energia merkaturatzailea sortzea. Txostenak ebatzi zuen aukera egokia dela; hala ere, oraindik ez dute erabakirik hartu eta aztertzen ari dira.

Garesen ere, autohornikuntza helburu

Izabakoaren antzeko adibide gehiago daude Nafarroan; horietako bat Gares Energia egitasmoa da. Garesen (Nafarroa) ere tokiko garapenerako udal taldea sortu zuten 2014an, eta herriaren baliabideekin zituzten aukerak aztertu ondoren, zentral minihidraulikoaz baliatzea erabaki zuten. Electra-regadio izeneko zentralak energiaz hornitu zuen herria 1918tik 1983ra bitarte. Garai hartan zentralak ekoizten zuen energia elektrikoarekin herria hornitzen zuten, eta soberakinak industriara bideratzen zituzten.

1980ko hamarkadako olatu pribatizatzailearen ondorioz zentrala itxi egin zuten, eta ordutik geldirik dago. Orain, berreskuratzeari ekin diote, herrian aldaketa energetiko eta soziala sustatzeko tresna egokia dela uste baitute. Zentrala martxan jartzeko bi saiakera gehiago egon dira aurretik, baina oraingoan harago joan nahi dute, Oihan Mendo alkateak azaldu duen bezala: "Aurreko proiektuetan soilik energia saltzeko ikuspegia zuten. Guk, ordea, energia berriztagarria produzitu nahi dugu, baina baita energia hori publikoa, gertu ekoiztua eta autokontsumorako izatea ere".

» **Jesus Ezkurra (Energia Gara):**
"Proiektu energetikoak baliatu behar dira onura sozialak lortzeko; gizartearen burujabetzan aurrera egiteko"

Arga ibaiko ura erabiltzeko orduan, Garesko nekazariak aintzat hartuko di-

1980ko hamarkadako olatu pribatizatzaileaz geroztik itxita dagoen zentral minihidraulikoa martxan jarri eta energia berriztagarria produzitu nahi dute Garesen, publikoa, gertu ekoiztua eta autokontsumorako. Ezkerrean, Oihan Mendo Garesko alkatea eta Paulo Ausejo San Jose proiektuaren sustatzaileetako bat zentrala erakusten, Iruñeko Alternatiben Herriko 'Auzokoak' ikusentzunezkoaren saioetako batean. Eskuinean, Garesko Ermineta zentrala.
ALTERNATIBEN HERRIA / GARESKO AUZOLAN

tuzte. Haiek ur kopuru handia behar dutenez, zentralaren proiektua plaka fotovoltaikoekin osatuko dute. Herriko frontoiaren teilatuan jarriko dituzte, eta sortzen duten energia fotovoltaikoa udan erabiliko dute, nekazariek ur gehien behar duten garaian. Honela, produkzioa etengabea izango da. Gares Energia izena deitu diote bi ekimen horiek barnebiltzen dituen proiektuari. Lortzen duten energia herriko argiteriara eta eraikin publikoetara bideratuko dute, eta herriaren energia gastu osoaren %50 hornitzea aurreikusten dute. "Erabateko autohornikuntza lortzeko bide berriak bilatzen jarraituko dugu", gaineratu du alkateak.

Herritarren ahalduntzea dakar

Energia burujabetzan aurrera egiteak herritarren ahalduntzea eragiten duela ziurtatu du Jesus Ezkurra adituak: "Proiektu energetikoak baliatu behar dira onura sozialak lortzeko; gizartearen burujabetzan aurrera egiteko". Izabako kasuan, egin duten urratsa eskualdearen berezko arazoei aurre egiteko onuragarria izan daitekeela uste dute. Hain zuzen, herritarrak bertako baliabideen balioaz jabetzea positiboa da despopulazioaren aurka. Perez: "Kanpoko laguntzen zain egon gabe, daukagunarekin aukera berriak eskaini ahal baditugu, herritarrek arrazoi bat gehiago izango dute bertan geratzeko".

Garesen ere alde soziala zaintzen ari dira; energiaren proiektua aitzakia gisa harturik, hondaturik dauden herriko toki batzuk konponduko dituzte: frontoiko teilatua, ibaiaren pasealekua... Lan horietako batzuk, gainera, auzolanean egingo dituzte, kolektibotasunaren ideia lantzeko. "Honela, jendeak ikusiko du energia lehen mailako baliabide eta beharrizana dela, eta jabego kolektiboaren barruan dagoela", azaldu du Mendok.

» **Aitor Perez (Izabako energiaren udal taldea):** "Kanpoko laguntzen zain egon gabe, daukagunarekin aukera berriak eskaini baditzakegu, herritarrek arrazoi bat gehiago izango dute bertan geratzeko"

Gainera, halako egitasmoek lanpostuak ere sortzen dituzte herrietan. Garesen, kasurako, zentrala berreskuratzeko eta plakak jartzeko lanetarako langileak beharko dituzte, eta horiek kontratatzeko herrian duten lan poltsa erabiliko dute. Izaban, ordea, lanpostu bakarra sortuko dute, komertzializazioaz arduratuko dena; baina herri txiki batean epe luzerako lanpostu duin batek garrantzi handia duela nabarmendu du Perezek.

Egindakoa zabaldu nahi dute

Egindako bidea hor gera ez dadin, bai Izaban eta bai Garesen energiaren ikasgela bat sortzeko asmoa dute, haurrek haien herriko esperientziak ezagutzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, turismoaz ere baliatuko dira. Oso herri turistikoak dira biak: Izaba Erronkari bailarako herririk handiena da, eta neguan jende asko doa Belaguan eskiatzera. Garesetik, berriz, Done Jakue bidea igarotzen da, eta urtero milaka erromesek bisitatzen dute herria.

Hortaz, aukera hori aprobetxatu nahi dute energia eraldaketaren inguruko informazioa zabaltzeko. Bisita gidatuak antolatu nahi dituzte bi herrietan, zentrala eta energiaren ikasgela bisitatzeko. "Modu bat da jendeari erakusteko beste eredu batzuk posible direla, eta haiek haien herrietara itzultzen direnean herri mugimenduei edo administrazioei bultza diezaieten bide bera hartzeko", adierazi du garestarrak.

Beldurrek, ezjakintasunek eta erosotasunek askotan aldaketak geldiarazten dituzte. Izaban eta Garesen, ordea, argi dute: ez da beharrezkoa aditua izatea, ezta helburu lorrezinak ezartzea ere. Garrantzitsuena gogoa da. Perez: "Guk lehen ez genuen honen inguruko ezagutzarik, baina sekulako gogoa genuen. Ikusi genuen aukerak zeudela, eta elektrika handiei aurre egin ahal geniela".

Posible dela erakutsi ostean, aldaketa beste toki batzuetara zabaltzea dute amets. Haiek prest agertu dira ikasitakoa erakusteko eta besteei laguntzeko. "Guk tanta bat egin dugu, baina hau itsaso bilakatzea nahi dugu". ■

ESTELADA ARGITARA

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Ehun urteko beteko dira datorren Diadan estelada lehengoz argitaratu zutela. Baina estelada inprimatu baino lehen josi zuten. Irudikoa gorde den esteladarik zaharrena da, 1915ekoa. CRBMC. CARLES AYMERICH

Katalunia, 1918ko irailaren 11. Estelada, Kataluniako bandera izarduna, lehenengoz argitaratu zen inprimaki batean. *What says Catalonia* (Zer dio Kataluniak) izenburuko eskuorria zen, Lehen Mundu Gerra irabazitako herrialde aliatuei, nagusiki AEBei, ingelesez zuzendua. Utrechteko Itunaren (1715) zati bat jasotzen du orriak, besteak beste AEBetako Wilson presidentearen eta eta Ingalaterrako erregearen adierazpen batzuekin batera. Amaieran, "*Hurrah for the Entente!*", "*Glory to Wilson!*" eta "*Jutice!*" agurren aurretik, Utrechteko Ituna aldatzeko eskatzen zien aliatuei. Goian ezkerrean estelada zeukan inprimatuta eta, behean eskuinean, aldiz, AEBetako bandera. Comité Pro Catalunya edo Kataluniaren Aldeko Batzordeak argitaratu zuen Diadan banatutako orria.

Banderaren diseinua, aldiz, Vicenç Albert Ballesterrena (1872-1938) zen. Merkataritza nabigazioan lan egiten zuen eta Unió Nacionalistako militantea zen. Lanak Kubara eraman zuen behin baino gehiagotan XIX. mendearen amaieran eta 1898an, Kubak independentzia lortu zuenean, han zen Ballester. Independentzia prozesu hura eredutzat hartu nahian, Kubako Errepublikaren bandera berria izan zuen eredu estelada diseinatzerakoan: senyeraren ohiko launa marra gorri-horiei hiruki urdina eta bost puntako izar zuria erantsi zien. Hala ere, lehenengoz duela 100 urte inprimatu eta argitaratu arren, ez dakigu zehazki zenbat urte lehenago egin zuen diseinua. Zenbait iturriren arabera, 1903an sortu omen zuen, Santiago de Cuban.

Bada argazki bat 1908an Parisen egindakoa, Lliga Nacionalista Catalanaren egoitzan eta bertan izardun senyera bat ageri da. Baina argazkikoa ez da Ballesterren diseinua: banderaren erdialdean erronbo bat du eta, haren barruan, izarra. Esteladaren ohiko diseinua duen banderarik zaharrena –edo haren zati bat, argazkian ikus daitekeenez– Kataluniako Historia Museoan daukate eta 1915ean dago datatua. Lehen Mundu Gerran borrokatu ziren boluntario katalanek eraman omen zuten frontera.

Aipatutako bandera horiek estelada *blaua* edo urdinak dira; hiruki urdina eta izar zuria dute. Estelada *groga* edo horiak, aldiz, hiruki horia eta izar gorria du, eta kutsu ezkertiarra. Aurten ere urtemuga biribila betetzen du *groga*k, 1968an sortu baitzuen Partit Socialista d'Alliberament Nacionalek. Gero PCEk hiruki gorria jarriko zion, sektore ekologistek, hiruki berdea...

Baina duela mende bateko Diada hartan banatutako eskuorriak katalanezko bertsioa ere bazuen eta, bitxia bada ere, orri hartan senyera soila jarri zuten, izarrik gabea. Kataluniako Historia Museoaren hitzetan: "Estelada behin behineko bandera zen, independentzia lortu ondoren betiko senyera erabiltzearen aldekoak baitziren sortzaileak". ■

Txerrikia debekatu, ekonomia eta ekologiagatik

Musulmanek eta juduek debekatuta daukate txerrikia jatea, Koranak eta Lebitarren liburuak jaso bezala. Azalpenik zabalduena txerriek eragiten dituzten osasun arazoak izan dira: bizkarroi arriskutsuak edukitzea, trikina, esaterako, edo haragia erraz usteltzea... Baina Marvin Harris (1927-2001) antropologo estatubatuarrak bestela pentsatzen zuen. Haren ustez debekuaren atzean arrazoi ekonomiko eta ekologikoak daude. Txerrien habitat egokiena ibai bazterretako baso hezeak dira. Baina nekazaritzak Ekialde Hurbileko ekosistemak idortzea eragin zuen Antzinaroan eta horrek aldaketak eragin zituen abeltzaintzan, ahuntzak eta ardiak hobeto egokitu baitziren inguru berrira. ■

Pinuak gorritzen.

Udako gertakariak

TESTUA ETA ARGAZKIA:
Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Ederki zailduentzako moduko negu eta udaberri zailen ondoren, lurrarekin lanean ari direnentzat uda gozoa eskatzea libre izango zen, ezta?

Ez noa ni doakigun uda honen eguraldiaren "piura" deskribatzera, orri osoa beharko bainuke, eta subjetibotasunetan katramilatuko nintzateke, alfer-alferrik seguruenera. Nahiago dut azkenaldiko eguraldiaren joanaren ondorioz-edo nire arreta erakarri duten gertakari batzuk azaldu.

Bare eta barraskiloen emana ez da urritu. Ez dut horrelako urterik ezagutu. Baina harritu nau gure etxe inguruan ugari samarrak diren zapoak aurten bere dieta osatzen duten bi haien proportzio berean ugaritu ez izana. Bi arrastakari haiek baratzean eginzale diren landare sarraskiei aurrea hartzeko zaintza lanak zorroztu behar izan ditut; gauero hor ibili naiz begirale katuaren mugarrien barruan birundan. Matxinsalto berdeak inoiz baino ugariago ikusi ditut. Abuztuaren lehen egunean bibelarra botatzen ari ginela ikusi behar zen zer matxinsalto eta salto festa segamakinaren aurrean.

Bigarren loraldi deigarria izan dute sasiakaziak (*Robinia pseudoacacia*) eta Soulangeko magnoliak (*Magnolia x soulangeana*).

Indarra hartu dute aurten ere garoak (*Pteridium aquilinum*) eta belar jakin batek: *Paspalum dilatatum*.

Sagarrondoen (*Malus x domestica*) eta mahatsondoen (*Vitis vinifera*) loraldiak atzera etorri baziren ere, fruituen heldutasun maila bere onera etorri dela dirudi eta urtero modutsuko sasoian izango direla uztak.

Deigarria gertatu zait aurten zumarrek (*Ulmus sp.*) aspaldiko urtetako pasadarik handiena hartu dutela. Gaitzak adar ugariri eraso die, bai eta batzuk goitik behera erre ere. Pinudietan (Larizio pinua *Pinus nigra* eta Intsinis pinua *Pinus radiata*) ere gaitzak harrotu dira.

Duela gutxi, lorazain batek idatzi dit ea indimitrearen (*Lagerstroemia indica*) loraldiaz ez ote dudan ezer idatzi behar sareetan... Eta zerk jo du zure begia? ■

GURE SUSTRAIAK

Guztion beharretara egokitutako Baserri Eskola

Garazi Zabaleta
@tirikitrann
ARGAZKIA: GURE SUSTRAIAK

Biologia ikasketen amaierako proiektuan baserri eskola sortzeko ideia landu zuen Gure Sustraiak proiektuko kide batek 2002an. Karrera amaitu eta gutxira, lagun batekin elkartu eta paperetik errealitatera salto egitea erabaki zuten: Gure Sustraiak Baserri Eskola proiektuaren lehen urratsak ziren. Geroztik, lekua eta proiektuaren ezaugarriak aldatuta ere, Olloko (Nafarroa) baserri eskolak bizi-bizi jarraitu du hasierako helburuetako bat zena oinarri hartuta: ingurumenaren eta jasangarritasunaren bueltan lan egitea.

Baserria, baratzea eta basoa

Hiru gune horiek darabiltzate baserri eskolan ingurumen hezkuntza lantzeko. "Baserrian, adibidez, animaliei jaten ematen diegu eta animaliekin lagunduriko terapia egiten dugu. Baratzean hainbat jarduera egiten ditugu: ureztatzea, landatzea... dena iraunkortasun printzipioekin lan eginez", azaldu digu Leire Rivas Jorge proiektuko gizarte hezitzaileak. Basoan, berriz, naturarekiko errespetua eta ekosistemak lantzen dituzte; gizakiak munduan duen eragina aztertu eta eragin hori positiboa izan dadin zer egin daitekeen hausnartzen dute.

Tailer eta formazio saioak ere antolatzen dituzte bertan: ogia egiteko tailerrak, ukendu eta belar tailerrak edota energia berriztagarrien ingurukoak, adibidez. Eta horrez gain, kanpotik etorritako profesionalek hainbat formazio saio eskaintzen dituzte Gure Sustraiaken egoitzan: estimulazio multisentsorialaren edo permakulturaren ingurukoak, esaterako. Familiak eta lagun taldeak asteburu pasa edo bazkaltzera, eskolak kanpaldietara, behar bereziko entitateak astebete pasatzera... profil eta plan anitzek dute tokia Olloko gune honetan.

Behar bereziak dituztenentzat egokitutako gunea

2005ean mundu berri batean sartzen hasi ziren proiektuko kideak, erdi kasualitatez. "Uda hartan behar bereziak zituzten hainbat zentrok baserri eskolan egin zituzten oporraldiak". Proiektuaren inflexio puntua izan zela azaldu du gizarte langileak: ingurumen hezkuntza behar berezien mundura zabaldu zuten orduan proiektuko kideek. Egoitza tokiz aldatzea erabaki zuten pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko eta Baserri Eskola edonoren beharretara egokitzeko.

2013tik, gainera, urritasun intelektualak dituzten 12 pertsonentzako pisu funtzionala ere badute baserri eskolako aterpeko bigarren solairuan. "Astelehenetik ostiralera erabiltzen dute, jarduera produktibo eta hezitzaileak egiteko". Ingurumen hezkuntza eta inklusibitatea eskutik doaz Gure Sustraiak Baserri Eskolan. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Irailak 6: Gasteiz
Adin guztientzako jarduera: "Berdeguneak, leku isilak". 19:00etan Atarian (Biosfera pasealekua 4).

Irailak 8: Aralar
"Aralarko pagadia, karts eta behatokiak" 8 kilometroko ibilaldi gidatua. Dohainik da eta aldez aurretik eman behar da izena: info@mirua.com / 608 560 369.

Irailak 8: Usurbil
"Etxean sagardoa egiteko hastapenak" ikastaroa Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiainen eskutik. 9:00etan Potxoenea Kultur Etxean.

Irailak 8: Aia-Pagoeta
"Erleen sekretuak" bisita gidatuak. Iraileko asteburuetan, 13:00ean Iturraran parketxean. Sarrera: helduek 6 euro eta umeek 2.

Irailak 8: Bera
Baztan-Bidasoa aldeko nekazarien azoka. 10:00etan Rikardo Baroja ikastetxean.

Bertsoz "iraintzeagatik" Txirrita kondenatu zutenekoa

EL DIA POLITICO

En las Cámaras

CONGRESO

SENADO

POR LA NEUTRALIDAD

El Sr. Bergamín en ZARAGOZA

NOTICIAS VARIAS

ULTIMA HORA

Tribunales



Tribunales

«... á vosotros mi canto consagro». Y efectivamente, el canto del versolari fué tan avieso que se cayó en las redes del Código penal.

El conocido versolari guipuzcoano «Chirritak»—creemos que es de Hernani—José Manuel Lujambio y el vecino de Lasa, a Tomás Alcaine, ocuparon ayer el banquillo ante el Tribunal de Derecho, acusados de los delitos de injuria y calumnia al alcalde pedáneo que fué de Legasa don Eusebio Babace.

El versolari estaba ayer aplanado á la vista del aspecto severo del Tribunal que había de juzgarle.

El no sabía de cosas tan serias y nunca pudo sospechar que las improvisaciones de su ingenio que derrochó pródigamente en catorce estrofas, inspiradas y mandadas imprimir por Alcaine, pudiesen llegar á constituir un delito. Es más, ni sabía quien era Babace ni tenía motivos para afirmar si era cierto que cobraba multas sin darles la inversión que manda la ley municipal.

El puso á contribución sus facultades al servicio de un encargo que, previo pago, le dió Alcaine; y sin duda, sin quererlo, se le corrió la pluma y lo que quiso ser un canto de ironía, resultó una serie de disparates que levantaron en vilo á don Eusebio Babace de quien se decía, en los versos euskaros, unas cuentas cosas mortificantes por su gestión de autoridad y se le atribuía el hecho de haberse quedado para sí las cantidades que hacía efectivas por multas que imponía.

El caso es que los versos se vendieron á 10 céntimos, con un éxito loco, en Santesteban, el día 30 de Junio del año pasado, donde había gran afluencia de forasteros con motivo de las fiestas anuales que se celebraban.

La lectura de los versos produjo gran hilaridad y regocijo; tanto, que hubo momentos en que la algazara pública revistió caracteres de desorden y tuvo que intervenir una pareja de la guardia civil.

Goian, 1916ko urriaren 31ko "Diario de Navarra" egunkariak ekarri zuen epaiketaren kronika. Ezkerreko orrian, Unai Iturriagak "Bertsolari" aldizkarian gaia ilustratzeko eginiko irudia.

Legasako alkate ohiari buruz 1913an enkarguz jarritako bertsoengatik kondenatu zuten bertsolaria 1916an Iruñeko auzitegian. Mikel Taberna idazleak *Bertsolari* aldizkariaren 110. zenbakian argitaratu duen ikerketa lanean kontatu du guztia xeheki, eta penaz adierazi du iturri guztietara jo arren ez duela bertso sorta aurkitu. Auzitegiko epaian, gaztelaniaz jasota dago bertso sorta horren itzulpena.

Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre
ILUSTRAZIOAK: UNAI ITURRIAGA / BERTSOLARI

1916ko urriaren 31ko *Diario de Navarra* egunkariak ekarri zuen, hirugarren orrian, auzitegiko bezperako saioaren kronika, EME sinadurapean. Bertan azaltzen zenez, Tomas Alcainek 40 pezetaren truke eskatuta, Txirritak bertsoak jarri zituen Legasako alkate ohi Eusebio Babazeri buruz. Bertso-paper hauek 10 (pezetaren) zentimoan saldu ziren Doneztebeko jaietan, kalean zalaparta handia sortuz: "*La algazara pública revistió caracteres de desorden y tuvo que intervenir una pareja de la guardia civil*". Babazek, sumindurik, salaketa jarri zuen bertsolariaren eta enkargua eman zuenaren aurka. Azaroaren 10ean ekarriko zuen sententzia egunkari berak: kondenatu egin zituzten biak.

Iruñeko Lurralde Entzutegiko 205 liburuan aurkitu du Mikel Tabernak epaia: 1916ko azaroaren 6ko data darama eta 14 orrialde "idor" dira, makinaz idatzirik. Epaiak zehazten du Tomas Alcainek urte horretan 60 urte zituela, eta sortzez iruindarra izanagatik Legasan bizi zela. Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*k berriz, 55 urte zituen garai horretan, eta

"DELITUZKO" 14 BERTSOEK ZER ZIOTEN, BADA?

Iruñeko Lurralde Entzutegiko 205 liburuan aurkitu du Mikel Tabernak Txirrita kondenatu zuen epaia: 1916ko azaroaren 6ko data darama. Tamalez, jatorrizko bertsoak, euskarazkoak, ez ditu inon aurkitu Tabernak. Horrela adierazi digu: "Iruñeko Udal Artxiboa, Nafarroako Artxibo Nagusia, Espainiako Auzitegi Gorena, Guardia Zibilen Artxibo Historikoa, egunkariak, inplikatutako familien funtsak... horietan galdetu dut eta denean froga nagusia falta da! Oso bitxia da. Eta herrian ere ez aztarnarik gelditzea! Jarraituko dut herritarren artean galdezka. Badut esperantza agertuko direna".

Baina epaian bai ageri da hauen edukia, gaztelerara itzulita.

Itzuli ezinezko "irainak"

1916ko urriaren 31ko *Diario de Navarra* egunkariko kronikaren arabera, Joxe Agerre Santesteban iruindarrak egin zuen Txirritaren bertsoen itzulpenetako bat gaztelerara; eta Berako Jenaro Larratxe Agirrek egin zuen beste itzulpena. Biek itzulpen "erabat desberdinak" egin omen zituzten, kronikalariaren hitzetan. Itzultzaileek adierazi zuten ezinezkoa zela literalki itzultzea ("*el vascuence es de una estructura totalmente distinta de la del castellano, tanto que no es posible hacer una traducción literal*").

Baina Txirrita (bertsoak egiteagatik) eta Tomas Alcaineren (bertsoak enkargatzeagatik) aurkako salaketa jarri zuen Legasako alkate ohi Eusebio Babazeren abokatuak ontzat eman zituen bi itzulpenak, funtsean berdintsuak zirela esanaz. Txirritaren abokatuak, aldiz, horixe izan zuen argudio: nola ondorioztatu zitekeen hitz haietan deus txarrik zenik, eginiko bi itzulpenak hain desberdinak izanik? Epaileak ere bi itzulpenak mamiz berak zirela ebatzi zuen. Epaiak erdarazko bertsio bakarra jaso du, eta ez du zehazten bertsio hau Larratxe edo Agerre, nork itzulia den.

Joxe Agerre Santesteban idazle, kazetari eta politikariak bertsoak itzultzeaz gain, epaiketan ere itzultzaile lanak egin zituen bi akusatuen (Txirrita eta Tomas Alcaine) eta legelarien artean.

Bertso berriak gertaera zahar bati jarriak

Zergatik jo zuen Alcainek Txirritarengana, bertsoak jartzeko eskatuz? 1913ko abuztuaren 3 gauean hasi zen guztia. Eusebio Babaze, orduan Legasako alkateak, eztanda entzun zuen bere etxe aurrean, eta biharamunean, Sunbillako Guardia Zibilen kuartelean salaketa jarri zuenean, hiru herrikide salatu zituen, dinamita haiek zartarazi zutelakoan: Tomas Alcaine, Pedro Hualde eta Frantzisko Mendiola. Hiru hauek haserre ziren berarekin, aste pare bat lehenago isuna jarri zielako hirurei: bosna pezetako multa biraoak esateagatik, bost pezeta gehiago Hualderi alkateari desobeditzeagatik eta pezeta bat gehiago Alcaineri herriko ordenantzak ez betetzeagatik.

Iruñean egin zen auzian hiru auzipetuek ukatu egin zuten leherketa haiek egin zutenik, eta epaileak kasua itxi zuen epaiketarik egin gabe, ez zegoelako hiru haiek izan zirenaren frogarik.

Tomas Alcainek Txirritarengana jo zuen, eta gertaera haiei buruzko bertsoak jarraraziz itzuli zion alkateari Guardia Zibilen aurrean bera salatu izana. Bertso sorta honek epaitegira eramango zuen Alcaine Txirritarekin batera; eta dinamitak baino zigor handiagoa ekarriko zion bertsozko "irainak" epaileengandik.

Hernanin jaiotako bertsolaria Errenterian bizi zen ordurako. Jatorrizko bertso sorta sumarioko zazpigarren folioari josia dagoela dio epaiak, baina tamalez Mikel Tabernak ez du inon aurkitu. Baina bai ageri da bertso hauen mamia gaztelerara itzulita.

Mikel Tabernak Txirritaren funtsa arakatu du eta zera adierazi du: "Bertso hauek ez dira hain larriak. Txirritak emakumeen aurka eta defendatzeko aukerarik ez zutenen aurka askoz gordinagoak jarriak bazituen, enkarguz. Alkateak bertso hauengatik auzitegietara jotzea... agian beste elementuren batzuek izango zuten bere pisua: Alcaine eta bien estatusaren artean zegoen aldea, herritar xeheek beraz irri egitea ezin eramana...".

Unai Iturriagak "Bertsolari" aldizkarian argitaratutako irudia. Kondenatutako Txirritari ongi-etorria egiteko egitaraua eta afixa irudikatu ditu, Txirritak lurraldea aipatzeko hainbestetan erabilitako "Kantabriako partian" hitzak festa bihurtuz.

BERTSO BERRIAK

MIREN IBARLUZEAK ITZULIAK

1
Mila bederatziehun eta
hamalaugarren urtean
kasu bitxi bat gertatu zaigu
legasatarren artean.
Eta aurkitu garenerako
muturraren muturrean,
zer gaude ba pazientzia dosi
handi baten beharrean!

2
Egun Legasan bada urroztar bat,
Eusebio du izena.
Galoirik gabe dago gaixoa,
lehen jefea izan zena.
Ondo sufrituaren traza du,
ez baita oso gizena.
Hitz batez da gizon bat nirekin
lehendik sapan dabilena.

3
Aldiz nik ez dut pausorik eman
ez dena endredatzeko.
Konfiantzazko etxea nuen
baita gutunak leitzeko.
Baina behin pezeta kendu zidan
gizonak multa ordaintzeko,
ta intentziorik ere ez du egin
inori entregatzeko.

4
Hau ona! Arrazoia zanpatu
eta nahigabetu ordez,
gizona harrotuta jartzen da
gurekin kopeta beltzez.
Han agertzen da bizkitartean
multak beretzako gordez.
Beste askorekin egin bazuen,
gurearekin nola ez!

5
Notario-fiskal ustekoa!
Etsai laguntzat nuena!
Multak kobratu beharrez presak
hartuta ibiltzen zena
indarka bota dugu udaletik
eta itzuli du dena.
Guk uste dugu horixe dela
bukatzeko bide onena.

6
Ez nuen egundo pentsatuko
hala gertatuko zenik.
Baina hala jarduten hasita
bada diferentziarik.
Errugabeak zigortuz pozten
zenak gu ere iraindu nahirik,
anuntzio bat jarri ez zuen ba
arrotz ginela esanik!

7
Berrogeita hamar urte luze da
bizi garela Legasan,
jakina denez aspaldidanik
itzal egiteko trazan.
Errezu Jaungoikoak zenbaiten
migi gaiztotik gorde gaitzan!
Hitz faltsuz kargatu baikaituzte
Kristorekin egin gisan.

8
Dinamita jarri ziotela
esan eta esan berak.
Ta ondorioz frijitu gaitu
ospe txar eta galerak.
Baina fastidio handiena
hari sortu dio aferak,
ezen ordaindu behar izan ditu
hondatutako platerak.

9
Guardia Zibilak deklaratzera
deitu gintuen lehenbizi,
ta gure ibilera denen berri
jakiteko azaltzen hasi.
Baina azkenerako norbaitek
zuen han jakinarazi
haren ustetan ez genuela
guk kastigurik merezi.

10
Guardia Zibilek Sala del Vallen
juez aurrera entregatu
gintuztenean Etxandi jaunak,
hitza hartuta, aurkeztu
zuen konpetentziaren faltan
nahi zela desenkusatu,
eta afera Iruñaldean
behar zutela aztertu.

11
Iruñera bidali gintuen
juezak dena ikusita,
han erabaki zezaten auzi
hau ulertu ta ikasita.
Han dena izan genuen aldeko,
beldurrak kanpo utzita.
Gizona, nahastetan zertan sartu
kalte guztiok bizita?

12
Estimatzen da adiskide batek
karta batez esatean
hari deitzeko geldiaraziz
gero Iruñea partean.
Bere influentzien indarrak
erabilita tartean,
libre jarriko gintuzkeela
egun erdiko epean.

13
Berandutu zitzaigunez gero
hura joana zen handik.
Ezin egundo ondo ibili
okerreko bidetatik!
Hango juezak ezin esan edan
zuela gure poltsatik,
dena atera baitzen dagokigun
gizonaren azaletik.

14
Espero gisa gure lanera
itzuli gara sikira!
Gizonak zenbat galdu ote duen
jendearen ikusmira!
Jarri gaitezen kasu honetan
gertatuari begira:
gure Tomas, Pedro eta Frantzisko
orain deskantsatu dira.

Itzulpenaren berritzulpena

Bertsolari aldizkarian Miren Ibarluzea bertsolari eta itzultzaileak ekarri ditu berriz ere euskarara Txirrita epaitegira eraman zuten 14 bertso hauek (orri honetan irakurgai). Aipagarria da Ibarluzeak bertsoz egin duela gaztelerako edukiaren itzulpena, neurtuta eta errimatuta. ■

Martín Perillán, Julio Lassala eta Bruno González epaileek argudio hauek idatzi zituzten Alcaine eta Txirrita errudun jotzeko: alkatearenganako mespretxuz idatzi zirela bertso bidez kontatzen ziren gertaerak, eta gainera espres idatzi zirela eskualde hartan nagusi zen hizkuntzan ("*haberse redactado, de propósito, en la lengua dominante en el pais donde se publicó; en versos populares...*"). Zirkunstantzia horiek garbi uzten omen zuten zein zen egileen asmoa: auzi-jartzailea mendratzea eta fama txarra ematea. Alcaine eta Txirrita, biak berdin jo zituen epaileak irainengatik ("*delito de injurias graves por escrito y con publicidad*") errudun: Alcaine, bertsolariari kontu iraingarriak jakinarazteagatik eta Txirrita, min emateko moduan papereratzeagatik ("*revistió dichos conceptos de la forma ritmica e incisiva o mortificante*").

Zigor ekonomikoa eta intsumisioa

Hauxe zen jarri zieten zigorra: hiru urte, sei hilabete eta hogeita bat eguneko deserriratzea, Legasatik 25 kilometrora, gutxienez. 250na pezetako isuna; eta prozesuko kostuaren erdia erdibana ordaintzea, alegia, gastu horien laurdena bakoitzak.

Alcainek errekurtsoa jarri zuen Madrilgo Auzitegi Gorenean, baina ez zuten aintzat hartu.

Ordea, 1918ko maiatzaren 21eko autoan Mariano Zirikiain Gea instrukzio epaileak ebatzi zuen bi akusatuak kaudimen gabeak zirela, alegia, ezarritako isuna ordaintzeko adina dirurik ez zutela. Izan ere, Hernaniko Udalari Txirritaren ondasunetatik 2.000 pezeta enbargatzeko eskaera egina zion, eta hau da udaletik jaso zuen erantzuna: Juan Mendizabal Otaegi udaltxeko idazkariak idatziz adierazi zuen herriko ondarea azertuta ez zela ezer ageri Jose Manuel Lujanbioren izenean. Eta bi herritarren ahozko lekukotza ere jasotzen du Hernaniko Udalaren dokumentazioak: Ramon Arbelaitz Zapiain eta Julian Alzelai Elortzak adierazi zuten "pertsonalki" ezagutzen zutela Txirrita, baina ez ziotela ondasunik ezagutzen.

Isunaren ordainetan, epaileak Legasatik deserriratze zigorra handitu zien bi kondenatuei. Ordura arte Txirrita ez zutela aurkitu ere adierazten du, beraz, ezin izan zioten sos bakar bat kendu bertsolariari. ■

HISTORIAN PISUA IZANGO ZUTEN HIRU ABOKATU

Txirritaren abokatua: GABRIEL IZIZ BUENO

Oibarren jaioa 1889an, abokatu bidean lehen urratsak ematen ari zen. Gerora ospea hartuko zuen baliabide ekonomiko gutxiko herritarrak defendatzen zituelako: bere gain hartzen zituen beste abokatuek nahi ez zituztenak. Langile jendeari zuzendutako eskola eta hitzaldiak ere eman zituen. Faxistek hil zuten 1936ko uztailaren 31n: Erreniega mendiko hobi komunean aurkitu zuten bere gorpua. Bere aita Oibarko alkatea zen, Izquierda Republicana alderdiko kidea, eta Hego Euskal Herriko lau lurraldeak hartzen zituen Lizarrako Estatutuaren alde sinatu zuen, herri ordezkari gisa. Bera ere semea erahil eta hilabete pare batera hil zuten faxistek.

Gabriel Iziz Bueno oroitzeko lurreko plaka Iruñeko Kale Nagusian dago, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak jarria.

Tomas Alcainen abokatua: FERNANDO ARBIZU AGUADO

Txirritarekin batera akusatuen aulkian eseri behar zuenak abokatu iruindarra hautatu zuen: Fernando Arbizu Aguado. Honek ere ez zuen eskarmentu handirik artean ofizioan. Baina legelari famatu izango zen gerora, Espainiako Kode Zibilaren foru eranskina idatzi zuena izan baitzen. Bere aita eta anaia Iruñeko alkate izatera iritsi ziren.

Legasako alkate ohiaren abokatua: MANUEL ARANTZADI IRUXO

Eusebio Babazek epailearen aurrera eraman zituen Txirrita bertsolaria eta bertsoak ordaindu zituen Tomas Alcaine, bere ondraren aurkako bertsoak zabaltzeagatik zigortu zitzaten. Salaketa epaiketan aurrera eramateko kontratatu zuen Manuel Arantzadi Iruxo, Lizarrako abokatua eta politikari jeltzalea ere bazena: bi aldiz Madrilgo Gorteetan diputatu izango zen (1918an eta 1923an) eta EAJko Napar Buru Batzarreko kide aktiboa. 1918an Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetakoa izan zen eta 1923an *La Voz de Navarra* egunkariaren sortzaileetakoa. Euskal Estatutua prestatzeko lanetan aritu zen. Espainiako Bigarren Errepublika garaian, antierrepublikarra zen Koalizio Katoliko Foruzalean sartu zen. 1936ko uztaileko estatu kolpean, Nafarroako EAJren izenean, matxinoen aldeko komunikatua plazaratu zuen.

ARGIA

www.argia.eus/multimedia

Euskarazko ikus-entzunezkoen
ezinbesteko erreferentzia interneten

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
2.300 bideo baino gehiago ikusgai



Erreportajeak
Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Dokumentalak
Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpituluekin.



Web Telebistak
Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.

Solasaldiak
Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Film laburrak
Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Elkarrizketak
Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.

Ekitaldiak
Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



Bideo herrikoiak
Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Aztarna artistikoak

Iratxe Retolaza

Zuloa
XABIER GANTZARAIN
Elkar, 2018.



Zuloa saiakeran, hogeita hiru obra artistikoren geografian barneraturik, Euskal Herriko arte garaikidearen ibilbide pertsonala osatu du Xabier Gantzarainek. Bada ibilbide historikoa ere, azken hogeita hamar urte luzeetako artearen ikuspegi soziokulturala osatu duelako, 1983. urtetik 2016. urtera arteko arte-lanen interpretazioak josirik. Zernahi gisaz, artearen historiaren konbentzioez beste egituratu du diskurtsoa: historia hurbila izan du ardatz, ez ditu obrak ordena kronologikoan aurkeztu, arte-lanak ez dira lotu kate logiko bakarrean, diziplina artistiko anitzen berri eman du (argazkigintza, instalazio eta interbentzio artistikoak, bideogintza, eskultura, performantzea, pintura eta abar). Arte-lanen artean izan badira oso lan ezagunak, imajinario kolektibora jauzi egin dutenak (esaterako, Jose Luis Zumetaren *Gernika*); eta izan badira hain ezagun ez direnak (adibidez, Nora Aurrekoetxea eta Laura Ruizen *Katalepsis*). Kanonaren ertzak ere lausotu ditu, beraz. Ugaritasun horri esker, *Zuloa* saiakerak arte garaikidearen argazki berria eskaintzen du.

Artearen dibulgazioan lan mugarria dugu, zalantzarik gabe, irakurleoi artearen esperientziak transmititzeko diskurtso-era berritzailea jorratu duelako, baita ahots pertsonal eta hurbila sortu ere. Hurbiltasun horri esker, eskutik hartuta darama irakurlea arte-lanen testuinguru artistiko, historiko eta soziopolitikoan barna. Arteak gizarte-kodeak azalerazteko, auzitan jartzeko edo berritzeko gaitasuna du, eta Gantzarainek arte-kodeak zein gizarte-kodeak harremanetan jartzen ditu. Arte-lanek sorturiko susmoak, ezinegonak eta galderak abiapuntu izanda, Euskal Herriko gatazka soziokultural edota soziopolitikoen inguruko zentzuetan eta sinbologian arakatzen du (euskalduntasunaren inguruko mitoak, Lemoizko zentral nuklearraren auzia, kontsumo-gizartea, gatazka armatua –ETAren indarkeria, polizia-jazarpenak, torturak…–, globalizazioa eta abar). Hartara, nolabaiteko memoria artistikoa eratu du *Zuloa*-n, baina, ez du sortu memoria narratibo gotorrik, puskaka, jauzika eta printzaka osaturiko memoria baizik, gure memoria kolektiboaren zulo hori osatze aldera: arte-esperientzien lekukotzak. ■

Xabier Gantzarain (Azkoitia 1975) idazle eta arte kritikaria da.
ARGAZKIA: DANI BLANCO

» DISKOA

Aire sigi-sagatsu liluragarriak

Joxi Ubeda Goikoetxea

Serpiente

S.E.R.P.I.E.N.T.E.

Autoekoizpena, 2018

Suge baten mugimenduak bezala, S.E.R.P.I.E.N.T.E. taldearen kantuak sigi-sagatsu tankerakoak dira, sorgintzaileak, liluragarriak. Giro misteriotsu batzuetara eramaten gaituzte, trantze eta nahasmen gisako egoeretara, eta askotariko sentsazioak iradokitzen dituzte.

70eko hamarkadaren amaierako eta 80ko hamarkadaren hasierako post-punk eta dark-wave kutsuak dituzten aireak dira. Joy Division, Siouxie and the Banshees eta garai horietako beste zenbait taldek jotzen zituztenak gogorarazten dizkigute, baina S.E.R.P.I.E.N.T.E. taldeak bere nortasuna dauka, bere ukitua, kantuak sortzeko eta jotzeko bere modua.

Hain zuzen ere, euskal-wave/suge-synth gisa definitzen dute egiten duten musika, eta beren asmoa esperimentatzea dela diote. Estetika arreta handiarekin zaintzen dute, eta horren adibide garbia da *Ar* kantarekin egin duten bideoklipa.

Doinuak gordina dira, melodiak goibelak eta ilun samarrak, eta kantetan nabarmentzen dira sintetizadoreen soinuak, ahotsen jolasak, baxuaren sendotasuna, eta bateriaren erritmo errepikakorrak –gehienetan– eta oso biziak –batzuetan–.

S.E.R.P.I.E.N.T.E. taldean Ana, Beatriz eta Elena bilbotarrak aritzen dira.

Ez da ohiko rock talde bat. Esaterako, gitarrarik ez dute erabiltzen, baina baxuak ederki asko betetzen ditu bi rolak, gitarrarena eta baxuarena.

S.E.R.P.I.E.N.T.E. taldean Ana, Beatriz eta Elena musikari bilbotarrak aritzen dira. Taldea 2015. urtean sortu zen, eta urteotan taldekideen artean hainbat aldaketa izan arren, taldeak bere izaerari eutsi dio. 2017aren amaierarako osatu dute beren lehen grabazioa, bost kanta biltzen dituen EP edo iraupen laburreko disko hau. Kantak Interneteko Bandcamp plataforman duten gunean entzun daitezke (*s3rpi3nt3.bandcamp.com*).

Talde interesgarria da S.E.R.P.I.E.N.T.E. Bere aire sigi-sagatsu liluragarriez gozatzen jarraitzeko, arretaz erreparatuko diegu bere mugimenduei, bere kantu berriei, eta, jakina, beren jendaurreko emanaldiei, agertokiaren gainean oso gustura aritzen baitira, grina handiarekin. ■

Poesia lurreko jendearentzat

Violeta eta Nicanor Parra 1966an, Txileko Santiago hiriko La Reina komunan Violetak altxatutako karpan. "Folklorearen Unibertsitate Nazionala" izendatu zuen karpan ikastaroak eman zituen. Bertan bizi eta suizidatu zen 1967ko otsailaren 5ean.

PAPARREAN ERREZITALDIA

Noiz: Uztailaren 14an.
Non: Eako poesia egunetan.

Itziar Ugarte Irizar
@itzugarte

Jaun-andreok/ hauxe da gure azken hitza/–gure lehen eta azken hitza–./ Poetak Olinpotik jaitsi ziren. Eako poesia egunetan gaude, Portusolon, iluntzeko azken argi orduetan. Agertokirik ez da hemen, non dena maila berean gertatzen den, hartzailea eta sortzailea lur berean diren. Eta agertokirik gabeko agertokian, orain, Gotzon Barandiaran, Itziar Castrillo, Ane Garcia eta Josu Landa. Eta haiekin, haien gorputzetatik, Nicanor Parra eta Violeta Parra. *Gure arbasoentzat/ luxuzko gaia izan zen poesia/ guretzat baina/ premia-premiako produktua da:/ ezin dugu bizi poesia barik*.

Ez Olinpo eta ez jainko. Horixe zen, hain justu, Portusolo. Lurreko jendea, etxe arteko belar gainean; poesia galdekatzaile, zorrotz, eder, lurtar baten zirraran. Castrillo saxofoian, beste hiruek eman zituzten txiletarren olerkiak euskarazko itzulpen ederrean, eta gitarrarekin abestu zituen Garciak Violetarenak. Lagundu zioten Barandiaranek eta Landak ere. Poetaren indarrez egin zuten, buruz inoiz. Landak Nicanor ikaslearen larrutik: *Zoratu egin gintuzten irakasleek/ harira ez zetozen galderekin. Nola batzen diren zenbaki konplexuak/ ba ote den armiarmarik ilargian*. Eta Barandiaran, belarri ertzera, irakaslearenetik: *tsarraren familia zelan hil zen/ ba ote liteke ahoa itxita kantatzerik?/ nork margotu zizkion bigoteak Giocondari/ zer izen duten Jerusalemgo biztanleek*. (...)

Hitza hartu eta jendearengandik gertuago uzten zutela zirudien. Bihotz-gogoak lurrera gerturatzen dituela parratarren hitzetan datzan munduak. *Nola mintzo zaizkigun askatasunaz,/ eta horixe bera falta zaiguna./ Nola eskatzen duten lasaitasuna,/ eta gu torturatzen agintedunak*. Eta bizi-bizi errepika: *Zer dio Erromako Aita Santuak/ bere usoa ikusirik hain lumatua?*

Irakurraldien tarteetan anai-arreben bizitzetako pintzelkada batzuk eman zituzten; antipoesia, komunitate maputxeekin lotura, Violetaren Parisko ibilerak... Landak aipatu zuen azkena; latza dela, latza, *Eskerrak bizitza* idatzi zuenak bere buruaz beste egin izana hura idatzi eta gutxira, 1967ko negu urrunean. Kantatu zuen hura ere Garciak, Amets Arzallusen itzulpena –haren eta besteen bila ariko ginen gero, armiarmako atarian–. *Eskerrak bizitza eman didalako/ begien kabi bat, nik zabaltzerako/ kolore guziak bazituelako/zeru altuetan izar gorri asko/ eta haien artean maitea han dago*.

Une batean euri tanta finak hasi ziren, eta ezer gertatzen ariko ez balitz bezala jokatu genuen denok. Berehala agortu ziren tantak, amaitu zen gidoia eta jendea gehiago eskatzen hasi zenean, 17-etara bueltan berriz Garciak: *Elkarri lotuz, elkarri,/ huntza bezala murruan,/ eta haziz doa, haziz,/ goroldioa harrian moduan*. Bai, bai, bai....

Gauza ederra da zauden tokian eta denboran, beste inon izan nahi ez izatea. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak



Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

				5			7	9
		5		7		4	6	
	7	1	6					2
5		4			9			
			8		2			
			5			6		4
9					4	7	1	
	4	3		2		9		
7	5			1				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Fitsik, deus ez.
2. Udalerriko administrazioa bere gain duen erakundea.
3. Berezitasun.
4. Argitasunik gabea.
5. Makilak, hagak.

Ebazpenak

5x5:

1. Tutik, 2. Udala, 3. Tasun, 4. Iluna, 5. Kanak.

2	8	6	4	5	3	1	7	9
3	9	5	2	7	1	4	6	8
4	7	1	6	9	8	3	5	2
5	2	4	1	6	9	8	3	7
6	3	7	8	4	2	5	9	1
8	1	9	5	3	7	6	2	4
9	6	2	3	8	4	7	1	5
1	4	3	7	2	5	9	8	6
7	5	8	9	1	6	2	4	3



Marie-Claire Leurgorri. Ttipitik ttipiaren defentsan

MATIUZALEM

Eskerrak militantziari

"Badakit militantziarik ez bazen izan ni ez nintzela laborari izanen. Hatsarretik ukan ditut oztopoak, plantatu nintzenean ttipi atzematen nindutelako eta hatsarretik ukan dut ELBren laguntza. Lurrentzako berdin, ez zitzaidan lan tresnen erostea posible eta hor ere, beharrik Lurzaindia hor izan nuela laguntzeko".

"Lakarrin du etxaldea Leurgorrik, errotik maite eta zaintzen duen lan tresna ttipia. Ttipia bezain gogorra, patarrean dituelako pentzeak. Lanbidetik ezin bereiziak ditu ELB sindikatuan eta Lurzaindia gisako ekimen kolektiboetan pasatako denborak. Militante nekaezina izan arren, gaur egungoa zaila zaiola aitortzen du: etxalde ttipien alde urte luzeetan eraman borrokek ez dutelako emaitzik eta egoera ekonomikoa geroz eta beltzagoa dutelako".

"Dena egina da etxalde ttipiak desagertzeko"

Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

Erreusitzeko etxalde handia behar da?
Uste hau untsa sarturik da jendeen gogoetan. Dena horretara bideraturik da, lagungoak ere etxaldearen handitasunaren araberakoak dira. Baina, guztiari begiratu behar zaio, ez da egia beti eta handiago izan eta sos haboro badela, handituz gastuak ere haboro ditugulako.

Hiru etxalde ttipik handi batek baino balio gehiago dutela dio ELBk.
Segur da herri baten aberastasuna hiru etxalde ukatean dugula. Ez bakarrik herriarena, lurrarena, biodibertsitatearena, ingurumenarena, baita ere komertzioena, ofizialena... Bazterrak oro biziarazten ditu laborantza azkarra ukateak.

Auzoen presentzia segurtatzen dute.
Zer da laborari izatea auzorik gabe? Hooo, zinez gaitza da! Zure munduan bakarrik gelditzea gai minbera da, bakartasun hau dute ondorioztatzen etxalde handiek. Handiago izan eta laborariak apurrago, jendeak apurrago eta azkenean bizia apurrago.

"Etxalde ttipiak" komisioa duzue ELBn.
2008ko krisia eta gero sortu zen. Krisia ez dakit garaian bazen eta orain ez den, baina orduan denek sendi genuen ekonomikoki gogortu zela, bizia gogorragoa zitzaigula. Ordungo ttipi guztiak hamar urteren buruan bizirik izateko helburuarekin sortu genuen.

Hori hola?
Etxalde ttipien problematikak ezagutarazteko helburuarekin abiatu ginen, hauek dutelako behar handiena. Denbora berean, Nekazaritza Politika Bateratu (NPB) berri batez pentsamenduka ari ziren eta Errumaniako komisario Dacian Ciolosek ere lagundu behar zirela zioen, laborantzaren bizkar-hezurra zirelako. Errumaniarentzat erranak Euskal Herrirako eta Frantziarako balio zuen.

Entzunak zarete?
Zinez gaitza da entzunak izatea. Entseatu ginen baina laster ikusi genuen FNSEA (Nekazari Ekoizleen Sindikatuen Federazio Nazionala) eta haien lagunen partetik zer nolako lobby lana dagoen. Ciolos ere ez zen entzuna!

Marie-Claire Leurgorri pankartan ELBko mobilizazio batean, ezkerretik hasita bigarrena da.
ARGAZKIA: ELB

Geroz eta etxalde gehiago da oso estu.
Segida dutenak baino etxalde huts haboro ukanen ditugu, ilkibide bat atzeman beharko dugu. Segida izaten ahal dutenetan ere mezu beltz bat pasarazten zaie ondorengoei. Segida errazkiago deslotuko da ez bazaio esperantzarik ematen. Esperantza ere bada, jendea plantatzen delako oraino. Laborari mundukotik kanpokoak ere badira, baina, ez da batere aisa hauen eta segidarik gabekoen artean zerbait lortzea. Etxaldea ez da bakarrik lan tresna, barnetik hunkitzen gaitu, nonbait gure etxeari, gure intimitateari lotua da, uztea gogor da.

Plantatzeko abantailak dituzte ttipiek.
Bai baina politika azkar bat ezarri behar dugu interesgarriak eta lagunduak bilaka daitezen. Usu sendi dut gure lana ez dela aitortua.

Bizi zarete elkartasunari esker, laborarien artekoa nola kontsumitzaileena.
Bai, baina noiz arte? Nik hori dut kezka! Ez dut erantzun baikor bat ematen ahal, sendi dut zinez pobretzen ari garela. Errealitate ekonomikoa hor dugu, dena egina da ttipiak desagertzeko. Zinez azkar izan behar da buru egiteko. Politikoki kanbiamendu azkarra behar litzateke etxalde ttipiei esperantza emateko.

"Borroka kolektiboak ez baziren izan ez nintzen sekula helduko".

Ez duzu sendi.
Badu hamar urte borrokan ari garela, etxalde ttipiak ez dira sekula hainbeste aipatu! Baina ez da deus eginik. Urtero 10, 20 ala 30 etxalde ttipi galtzen badira, zein gero litzateke Iparraldean? Nolakoa ukanen dugu ingurumena? Etxalde ttipiak ofizialki ezagutuak izan behar dira, beharbada hamar urteren buruan berantegi litzatekeelako.

Ez zara baikorrena. Betidanik ala azken urteetako ikuspegia duzu?
Duela hamar urte banuen esperantza azkarra, baina ikusten dudalarik egin dugun guztiarekin, Parisera egindako joan-etorriekin ez dela deus mugitu, zinez zaila zait. Sosaren aldetik ere zinez gogortzen ari zaigu egoera.

Egoera aipatzen da laborarien artean?
Etxalde ttipi bat isilik desagertzen da, emeki-emeki; "horrela duk, etxalde ttipietan ez da aisa" erranez desagertzen da. Gure artean aipatzen dugun? Ez eta horrek kezkatzen nau. Zinez sendi dut urtez urte pobretzen ari garela, duela 25 urtez anitzez ere hobeki bizi ginen! Erran behar da behi gorriekin naizela eta gu garela bereziki krisiaz hunkirik.

Militantziak eta kolektiboak ekartzen dizu beste aberastasun bat.
[Isilunea] Galdera zaila da eta momentuan ez zenuke hori galdetu behar [irria]. Borroka kolektiboak ez baziren izan ez nintzen sekula helduko. Hori aspaldi konprenitu nuen. Baina laborarien geroa segurtatzeko ez dakit borroka kolektiboak aski izanen diren. Ez dakit ere gerorako militantzia duela hamar ala hogei urteko bera izanen den.

Ttipiak babesten dituen sindikalismorik gabe, gerorik ez.
Hori segur da. Jada sindikalismoarekin zaila dugu, orduan sindikalismorik gabe... ■

Maravillas gaztetxea Erorien Monumentuan birkokatzea proposatuko du Nafarroako Gobernuak

Maravillas gaztetxea hustu eta berriz okupatua izan ostean, "egoerari 180 graduko bira emango dion proposamena" aurkeztuko du Uxue Barkosen exekutiboak: gaztetxea birkokatzea, Erorien Monumentuan. "Uste dugu aukera ona dela: Maravillas berriak lorategia edukiko luke eta dagoeneko barrutik kendu dituzte zorritsu, barka, gazteei igual pixka bat molestatuko zieten gauza naziak", azaldu dute gobernu foraleko iturriek, Sanjurjo eta Molaren gorpuzkiei erreferentzia eginez. Gobernuaren ustez, Erorien Monumentuak baditu abantaila gehiago ere, adibidez, tenis kluba gertu edukitzea: "Horrela, kirola egingo dute okupa madarikat... barka, gazteek; monumentuaren pareko urmaelean igeri egiten ere utziko diegu, txintxo portatzen badira eta betiere nafar guztien borondate demokratikoari erantzuten badio".

SAREAN ARRANTZATUA

Goazen auztiak kampora latak botatzera

Tekila bat, mesedez

Aita izan berriak biba eta ufaka sartu dira lantokietara, "oporretatik" bueltan

Abuztuaren 27an, goizeko 7:00etan, hilabetez itxita egon diren lantokietako ateak oraindik zabaldu gabe zeudenean dozenaka aita topatu ditugu ilara egiten, praketan kabitu ezinik. "Ia 30 egun pasa ditut etxekoekin, ho-gei-ta-ha-mar! Izugarri maite dut txikia, benetan esaten dizut, pertsona hobea egin nau eta hori, asko ikasten ari naiz... baina ño! hau gogoa neukana lanean hasteko!", kontatu digu Zigor Zabalak. Atzean daukan Amets Itoartek xanpaina dakar besapean, kiroldegiko inskripzio orriarekin batera. "Guztiok behar dugu gure espazioa. Horregatik egingo dut kiroldegiko bazkide txartela, erosiko dut karreratako bizikleta berria, Nordic Walking egiten hasiko naiz eta izena emango dut irakurle klubean", dio hunkiturik. Ilaran hirugarrena, Lolo Gichi kulote berriak jantzita etorri da lantokira: "Ni, bizikletan ibili gabe, *me muero*" –esan digu– "eta badakizu, umea zoriontsua izateko aita pozik egon behar da". Ateak irekitzean saltoka sartu dira hiruak, eta euren jarleku eta ordenagailuak muxukatzen hasi dira. Kafe garaian, Comunioko fitxaketez eztabaidatu bitartean, Porrotxen panpinari su eman diote.

Amul been nit ku leegalul

inor ez da ilegala

Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Kamiseta bakoitzeko 2 euro Mbolo proiektura bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak martxan jartzen ari diren garbiketa kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ✆ 943 371 545

15 €
Bidalketa gastuak 4 €

Udan patxadaz gozatzeko

{ 110 orritan gai beroenen analisia, urteko argazki eta Xabier Sagastaren ilustrazioek lagunduta }

ARGIA Jendeak etxean jasoko du,
eskatu beharrik gabe.

GAINERAKOEK:
Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ✆ 943 371 545

9,95 €